

Barrena



Zientoka realzale debabarrendarren bultzada izan du Realak Sevillan

Mundu bat batu da Realak Espainiako Errege Kopa irabazi osteko ospakizunera, bai herrietan zapatuan, bai Donostian astelehenean / 2-6


Aiora Berasaluze, Unai Pastor eta Koldo Agirrezabala, beren semeekin, pozarren, Cartujan.

PROTAGONISTEK LAGATAKOA

MENDIKO LASTERKETA

Iraitz Legorburu eta Leire Uribe gailendu dira Kilimon Trail lasterketa luzean

Leire Olazabal debarra eta Unai Fernandez Maguregi eibartarra izan dira debabarrendar azkarrenak 23 kilometroko proban / 8-9



Leire Uribe, helmugan. FOTORUNNERS

BOXEOA

Soraluzen jokatuko dituzte bihar boxeoko Euskadiko finalerdiak / 24



Jokin, Ixa Rodriguez, Aaron de Santa Ana eta Wasim. UBANE MADERA ZANGITU

KIROLA ETA EUSKARA

Zuhatza Trail aurkeztu du Debako Euskaltzaleon Mugimenduak

Mendi martxa eta lasterketa izango ditu bere baitan eta ekainaren 27an egingo dute; izen-ematea zabaldu dute Deba eta Itziarkoentzat / 25

MUSIKA

Reggaetonak hartuko du bihar, hilak 25, Ermua, Primavera Fest jaialdian

Laugarren aldia da biharkoa, eta Orbe Kardinala plazan egingo dute, 19:00etan hasita / 18



Danel Santiago eta Daaira, iaz, jende bete lagunen aurrean. PRIMAVERA FEST

GAZTE MUGIMENDUA

40 urte Elgoibarren gaztetxea sortu zutenetik / 11



JUSTO ARRIOLA

Sara
Elgoibar-Elorrio-Soraluze

10 €

60 €-tik gorako erosketetan baliozkoa.

@sara_sb kontua jarraitzen baduzu 10€ dituzu erregala!

Tiket hau erabiltzeko bakarreko balio du, eta ezin da metatu. Eskaintzak ekainaren 30era arte balio du.



Zoramena eragin du Realak Espainiako Errege Kopa irabazi izanak, poz kolektibo neurrigabea

Historia egin zuen zapatuan Realak, Espainiako Kopa irabazita. Sevillan jokatu zuten finala, Atletico Madrilen kontra, eta penaltietan gailendu ziren. Unai Marrerok bi penalti gelditu zituen, eta Pablo Marinek sartu zuen penalti erabakigarria. Realaren historian gizonezkoen taldeak irabazitako laugarren kopa altxatu zuen Mikel Oiarzabalek, Euskal Herritik joandako milaka realzaleren aurrean

Ainara Argoitia DEBABARRENA

Pablo Marinek azken penaltia sartu eta lehertu egin zen jai zapatuan. Milaka eta milaka realzalek bertatik bertara gozatu zuten finala –eta sufritu–, asko izan baitziren 1987koa errepikatze gogoz Sevillarrainoko bidea egin zutenak. Orduko hartan ere finalerdietan Athletic irabazita sailkatu zen finalerako Real, eta Atletico Madril izan zuen aurkari finalean. Gauza asko errepikatzen ziren, eta 87an gertatu baldin bazen oraingoan ere gerta zitekeela sinetsita joango ziren, ziurrenik, asko eta asko, sarrerarekin zein gabe. 2021eko arantza kentzea ere egongo zen askoren buruan. Athleticen kontra Espainiako Kopa irabazi eta nahi bezala ospatu barik gelditu baitziren orduan realzaleak, pandemiagatik. Eta bete zuten ametsa.

Unai Marrero atezain azpeitiarra heroi bihurtu zen kolpetik, 1987koan Luis Arkonada nola, eta altxatu zuen kopa preziatua Mikel Oiarzabalek zaleen aurrean. Telebistako irudiek malkotan eta jauzika erakutsi zituzten realzale asko, pozaren pozez hunkituta. Izan ere, keinu bereziak ere izan ziren irabazi osteko ospakizunetan; Mikel Oiarzabal kapitainak faxismoaren kontrako ikur bihurtua den Aitor Zabaleta zenari egindakoa, kasurako. Garaikurra zaleei eskaini berrikan, Zabaleta izena zeraman kamiseta lotu zion eibartarrak garaikurrari, eta lehenaz gain hunkitu ziren futbolzaleak. Ricardo Guerra Frenete Athleticoko jarraitzaile ultraeskuindarrak hil zuen Zabaleta, 1998an, Realaren eta Atletico Madrilen kontrako partida

ikustera Madrilerako joana zenean, eta ez dute ahazteko realzaleek, ez eta beste askok ere.

Sevillatik bidalitako irudiak

Sevillara joandako realzaleek han bertan bizi izan zutena nekez azal daiteke idatziz, baina orrialde hauetan batu ditugun argazkietan antzeman daiteke zer izan zen. Debabarrendarrek bidalitako argazkien aukeraketa bat bildu dugu hemen, zapatuaz geroztik bizi dugun marea txuri-urdin horren erakusgarri direlakoan. Baina, jakina, ospakizunak ez ziren Sevillara mugatu. Gure herrietan ere makina bat lagunek ospatu zuten Realaren garaipena; askok eta askok, lagunartean. Pantaila handiak jarri zituzten herri askotan, bete ziren txoko eta tabernak, eta etxean gozo ikustea erabaki zutenetako asko

ere inguratu ziren gauerdian festara. Astelehenean, berriz, elastiko eta bufanda txuri-urdinez bete zen Donostia, jokalariei udaletxean egin zieten harrerarako.

Mikel Oiarzabal izan zen balkoira irteten lehenengoa, eta gaur Real osatzen dutenak eta osatu dutenak izan zituen gogoan kapitainak, Kopa zaleei eskaini aurretik. Taldeari emandako babesa eskertu zien zaleei eibartarrak, eta haien zoriontasuna ikustea baino gauza hoberik ez zegoela nabarmendu zuten. Ondoren, Pellegrino Matarazzo entrenatzaileak hartu zuen hitza. "Txapeldunak gara. Hau hasi besterik ez da egin. Zuen laguntzarekin, jokalariek gauza handi asko lor ditzakete. Gaur zuei eskerrak emateko eguna da. Lehen egunetik erakutsi didazue zer den Real.

Eskerrik asko. Goazen, Real! ". Euskara hutsean aritu zen Pellegrino, eta irabazi zituen realzale eta euskaltzale askoren bihotzak. Unai Marrerok ere hartu zuen mikrofonoa balkoian, hala eskatu zutelako behean eguzki galdatan zeuden realzaleek: "Egundokoa da plaza horrela ikustea. Momentu txarrak pasatu dituzue, eta onak bizitzen ari gara orain. Disfrutatu!", oihu egin zuen realzaleen heroi gazteak. Marrerok Elustondori eman zion hitza, behin balkoitik jaitsita, hark egin baitzuten hizlari lanak. Taldekide guztiak aurkeztu zituen Elustondok, banan-banan, erdaraz, "denek uler dezaten". Kantu eta irri, luzatu egin zen ekitaldia, baina hantxe eutsi zioten realzaleek bukaerara arte. Ekitaldia Sune abeslariak itxi zuen, *Txoria txori* kantatuz.



Elgoibarko lagun kuadrilla bat, goitik behera txuri-urdin jantzita, Sevillan.



Cartuja estadioan sartzeko zortea izan zuten realzale elgoibartarrak, pozarren.



Diego Alvarez de Arcaya, ETBko kazetari elgoibartarra, koparekin.



Herriaren izena hartuta joan ziren elgoibartar batzuk Sevillara, eta elkartu ziren han beste lagun mordoxka batekin talde-argazkirako.



Argazkirik gabe ere nekez ahaztuko lukete eguna, baina argazkia ere egin zuten.



Txapeldunentzako jarritako oholta atzean zutela atera zuten argazki gogoangarri hau irudikoek.



Sevilla konkistatu zuen marea txuri-urdinak, zuri-gorria den oro azpian hartuta, Sevillako kartela bera ere bai.



Gurasoengandik jaso dute Realarekiko pasioa irudiko umeeek, eta ospatu zuten gogotik.



Ezkerretik eskuinera, Asier Iraeta, Beñat Sierra, Miguel Borinaga, Mikel Recio, Ivan Ayora eta Iñigo Cano; goian, Oier Ariznabarreta, Markel Barrutia, Aitor Oregi, Mikel Oregi eta Egoitz Placencia. MIKEL RECIO



Jon eta Markel Lizarralde eta Laida eta Diego Sanchez. LIZARRALDE



Goian, Julen Gabilondo, Xabat Deza eta Marko Akizu; erdian, Hodei Tajuelo, Manex Osinaga eta Lander Zubizarreta; eta behean, Anton Akizu eta Urko Aizpuru. ANTON AKIZU



Hiart eta Aitor Prieto aita-alabak, Cartujan. PRIETO



Aitz Arluziaga, zaleen gunean. IRAULTZ ARLUZIAGA



Behean, ezkerretik eskuinera, Oier Larreategi, Markel Barrutia, Jondar Plata, Jon Laskurain, Markel Fernandez, Mikel Recio Mikel Oregi eta Aitor Barrutia; goian, Aimar Bengoa, Iñigo Cano, Iñaki Recio, Iker Urkiri, Andoni Ariznabarreta, Egoitz Placencia, Ivan Aiora, Aitor Oregi eta Markel Gil. LETU




Jose Miguel Criado, Jesus Azula, Manoli Rivas eta Nuria Marin. MANOLI RIVAS



Hiart Prieto eta Amets Alberdi, zaleen gunean. AIITOR PRIETO



Hamarnaka zalek Debako Errealaren Lagunek Sevillara antolatutako autobusean egin zuten joan-etorria. JOXERRA LARRAÑAGA



Debako lagun talde bat, Giralda inguruan.



Autokarabanan joan ziren Sevillara Ibai Idiakze eta Enara Galdona, seme-alabekin.



Oier Salegi, Arkaitz Aristi eta Mikel Larrañaga debarrak –erdian–, Arkonada eta Larrañaga Realeko jokalaririk ohiekin.



Realzale debarrak, gustura asko Cartuja estadioan.



Debarrek ere txuri-urdinez jantzi zuten Sevilla, ikurrin eta guzti.



Debako lagun kuadrilla bat, partidaren aurretik, Sevillako kaleetan.



Debako realzale familia bat Sevillan, finalaren aurretik.



Realak Espainiako Kopako irabazi berritan asko izan ziren ospatzera kalera irten ziren mendaroarrak. Hortxe talde bat. AINARA ARGOTIA



Arene Salegi eta Olatz Altzerreka, bufandak eskutan.



Iñigo eta Maddi Usobiaga aita-alabak, Cartujan.



Markel Garate eta Ane Landa, Cartujan.



Zigor Arenillas eta Amagoia Basurto, etxekoekin, Sevillan.



Mendaroko gazte kuadrilla bat, ikurrin eta guzti, Sevillan.



Iker eta Gaxan Maiora anaiak eta Maialen Larrañaga, Enetz Ezenarro Mendaroko alkatearekin, Sevillan.



Ermean geratu ziren realzaleek Galiziar Kultur Etxean ikusi zuten partida. AURTEN BAI



Aurten Bai! taldeko realzale ermuarrak, Cartuja eta zaleen gune artean. ANGEL BALSERA

PUBLIERREPORTAJEA

Ikasketatik, lanera: Armeria Eskolako bide errealak

Armeria Eskola EIBAR
 Prestakuntza praktikoa, Dual eredu eta espezializazioak dira Armeria Eskolak lan-mundurako eskaintzen dituen giltzak. “Ikasitako eta garatutako ezagutzak zuzenean enpresako egunerokoa aplikatzeko aukera izan dut.”

Lanbide Heziketak gero eta protagonismo handiagoa du gaur egungo gizartean, eta Armeria Eskola erreferente bihurtu da ibilbide tekniko eta profesional sendoak eskaintzen. Irati Eizagirrek pausoz pauso eraiki du bere bidea: mekanizazioko erdi mailara igaro eta metrologia-ko espezializaziora iritsi arte. Ikasketa ezberdinak izan arren, elkarren osagarri direla azpimarratu du. Gainera, Dual formatuan ikasteak aukera eman dio ikasitakoa zuzenean

enpresan aplikatzeko, eta, horri esker, ikasketak amaitu bezain pronto Dual formakuntza egin duen enpresan lanean hasi da. “Kalitate-kontrola gero eta garrantzitsuagoa da enpresetan.”

Unai Fernandezek kasuan, bokazioa txikitatik dator. Automatismoen mundua etxean ezagutu zuen, eta horrek bultzatu zuen Lanbide Heziketa aukeratzera. Haren ustez, bide praktikoa izatea da gakoa. Robotika industrialean, erronka teknikoek motibatzen dute gehien: makina bakoitza desberdina da eta etengabe ikas-teko aukera ematen du. Gainera, tailerreko lana eta programazioa uztartzea gustatzen zaio gehien. “Makina bakoitza erronka bat da.” Etorkizunari begira, unibertsitatera jauzi egiteko asmoa du, baina argi dauka Lanbide Heziketak

emandako oinarri praktikoa ezinbestekoa dela. Bi ibilbide horiek argi erakusten dute Armeria Eskolak aukera erreallak eskaintzen dituela: ikasi, espezializatu, lan-mundura sartu edo unibertsitatera jarraitu.

AUKERARIK ONENA, ETORKIZUNA DUENA.

Ate irekiak: Apirilaren 29an



OSASUN GIDA

RPS 271/12

ainhoa
 Jaiorero plaza, 6 behea - Elgoibar
 943 531 953
 669 565 745

fisi&más
 Fisioterapia aurroraina eta Kirol Berregokitzea

RPS 177/12
 Trosbide kalea, 13
 943 740 191 / 667 933 628
 www.fisiomas.com

leku edero
 hortz klinika
 RPS 171/12
 Elena Herrero Lobo
 Aita Agirre Erpantza, 5 - Elgoibar
 943 530 053

aldaz
 hortz klinikak
 RPS233/13
 943 366 377
 San Bartolome, 22

NATUR HOUSE
 Ainara Iriondo Ansola
 GIZA ELIKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA
 RPS 203/16
 Toribio Etxebarria, 22
 Elibar
 677 551 850

Iraitz Legorburuk eta Leire Uribek irabazi dute Kilimon Trail lasterketa

Lasterketa motzean, Ibai Angulo eta Garazi Alzola gailendu ziren. Gazte mailan, Euskadiko Txapelketa izan zen Kilimon Trail, eta Alzola bera izan zen txapeldun nesketan; mutiletan, berriz, Xabier Arranz

Ainara Argoitia MENDARO

Kilimon Trail lasterketaren XIV. ekitaldia jokatu zuten zapatuan Mendaron, Euskal Herriko Koparako puntuagarria. Zortzi proba dira guztira Kopakoak, eta bigarrena izan zen Mendarokoa. Ohi legez, bi lasterketa jokatu ziren, 23 kilometrokoa eta 11koa, eta luzean, Iraitz Legorburu getariarra (2.05.44) eta Leire Uribe otxandiarra (2.30.50) izan ziren irabazle. Gizonezkoetan, Ibai Cebrian Garciak (2.06.49) eta Ander Jauregi Martinek (2.08.04) osatu zuten podiuma, eta emakumezkoetan, berriz, Eider Zubeldia Albenizek egin zuen bigarren (2.34.17) eta Miren Bastida Zabalak hirugarren (2.38.00). Debabarreneko ordezkarietatik, berriz, Unai Fernandez Maguregi eibartarra izan zen azkarrena gizonezkoetan, 2.12.54ko denbora eginda, eta Leire Olazabal Urzuriaga debarra emakumezkoetan, 2.48.32ko denborarekin. Sailkapen nagusian seigarren egin zuen Fernandezek eta 90. Olazabalek. Lasterketa luzean lehenengo mendarorak ere jaso zuen saria: Beñat Fernandez Loiolak (2.45.13).

Lasterketa luzekoek 23 kilometroko ibilbidea osatu zuten, eta bidean, Gaintxipia tontorreko igoera ere kronometratu zieten. Igoera hartan Iñigo Legorburu Azkue (0.03.22) izan zen azkarrena gizonezkoetan, eta Kiara Angulo Alberdi azpeitiarra emakumezkoetan (0.04.20).

Lasterketa motzean

Lasterketa motzean, Ibai Angulo Alberdi azpeitiarra (0.53.07) eta Garazi Alzola Gurendez, 14 urteko gasteiztarra, izan ziren azkarrenak (1.07.41). Podiuma honako beste hauek osatu zuten: gizonezkoetan, Iñaki Goenaga Aristi durangarrak (0.53.33) eta Asier Juanbeltz Astiz beruetearrak (0.56.41), eta Norah Muzas Ayerdiu donostiarrak (1.10.29) eta Libana Taboada Moran orioarrak (1.10.36). Eskualdeko korrikalarien artean, Asier Martinez de Lagos eibartarrak egin zuen denborarik onena. Sailkapen nagusian hamazazpigarren egin zuen Martinez de Lagosek (1.01.18). Lehen mendarorari zegokion saria, berriz, Jon Larrañaga Gorrotxategirentzat izan zen (1.01.32). Aipatzekoa da lasterketa motzean izan den mendararren parte-hartze handia: 25 lagun guztira.

Euskal Herriko Txapelketa, gazteetan

Gazte mailan, lasterketa laburrean bigarren sailkatutakoa izan zen txapeldun: Norah Muzas. Elaia Izagirre itziartarra izan zen bigarren, eta Udane Barrondo hirugarren. Mutiletan, Xabier Arranz nagusitu zen, eta Arnaitz Kortajarena eta Koldo Basterretxea igo ziren podiumeko bigarren eta hirugarren kosketara. Junior mailan, azkenik, Peio Ziarsolo izan zen irabazle, Josue Martin bigarren eta Anartz Azpiroz hirugarren.



Lasterketa luzeko lehen hiru sailkatuak: Ibai Cebrian, Iraitz Legorburu eta Ander Jauregi. FOTORUNNERS




Eider Zubeldia, Leire Uribe eta Miren Bastida. FOTORUNNERS



Debabarreneko lehenengoa lasterketa luzean: Unai Fernandez Maguregi. FOTORUNNERS



Luzeko lehen emakume debabarrendarra: Leire Olazabal debarra. FOTORUNNERS



Ekitaldi guztiak jokatu dituen Igon Manzisidor debarra. FOTORUNNERS



Lasterketa luzeko lehen mendarorria: Beñat Fernandez. FOTORUNNERS



Realari keinua egin zion Jokin Muñoz soraluzearrak. FOTORUNNERS



Euskadiko Txapelketa izan zen lasterketa 18 urtez azpikoetan. Hortxe, podiuma osatu zuten guztiak Federazioko lagunekin. FOTORUNNERS



Asier Martinez de Lagos eibartarra, lehen debabarrendarra, motzean. ANGEL OTERO



Jon Larrañaga, motzeko lehen mendararra, alabarekin eta lagun batekin helmugaratzen. AINARA ARGOTIA



Motzeko lehen debabarrendarrak, emakumezkoetan: Garazi Arizaga debarra. ANGEL OTERO




Lasterketa motzeko podiuma. Bi ertzetan, motzean lehen mendarorak izan zirenak: Olatz Urbieta eta Jon Larrañaga. FOTORUNNERS



Juniorretan, podiumera igo zen Elaia Izagirre itziartarra, Lizarpen. ANGEL OTERO



25 mendaroar aritu ziren motzean. Argazkian, gazteena, Luken Zulaika kadetea, sailkapen nagusian bigarren mendararra. A. ARGOTIA



Parte hartu zuten herriko bi emakumezkoak: Naiara Eizagirre eta Olatz Urbieta. A. ARGOTIA

NIRE USTEZ

Erreproduktzioa: eskubidea ala negozioa?



NAIA AIZPURUA
ITAIAKO KIDEA

Azken urteotan gero eta nabarmenagoa da emakumeon gaitasun erreproduktiboa merkatuaren logikan txertatzen ari dela. Ez da zaintzaren krisiaz edo jaiotza-tasaren beharakadaz soilik hitz egitea: badira beste adierazpen argiago batzuk ere. Obuluen donazioaren negozioak milioika euro mugitzen ditu, eta abortuen kasuan, %10 baino gutxiago egiten dira sistema publikoan. Horrek agerian uzten du erreproduktioarekin lotutako erabakiak gero eta gehiago interes ekonomikoen menpe daudela.

"Merkatuak onartzen duena zilegi da; emakumeon autonomia, aldiz, etengabe jartzen da zalantzan"

duena zilegi da; emakumeon autonomia, aldiz, etengabe jartzen da zalantzan.

Horrek erakusten du arazoa ez dela morala edo ideologikoa soilik. Egiturazko auzia da: emakumeon gorputzek balio ekonomikoa dutenean, onartuak dira; erabaki autonomoak hartzen direnean, ordea, gatazkatsu bihurtzen dira. Horregatik, erreproduktzioaren inguruko eztabaida ezin da eskubide formaletara mugatu. Benetako galdera da nork kontrolatzen duen: emakumeek ala merkatuak.

Eskubideak benetakoak izan daitezen, ezinbestekoa da emakumeon gaitasun erreproduktiboa negozio logikatik kanpo uztea. Bestela, gure askatasuna baldintzatuta egongo da beti.

GUTUNAK

Eskerrik asko

KILIMON TRAIL
MENDARO

Hamalagarrena egin dugu. Zuei esker lortu dugu aurtengo Kilimon Trail mendi lasterketa, kirol ikuskizun handia ez eze, jai handia izatea herrirako. Euskal Herriko Koparako proba puntuagarria izan da aurten lasterketa seniorretan eta Euskadiko Txapelketa 18 urtez azpikoetan, eta lehenaz gain, ardura handia izan da hori, halakoetan gauza asko direlako zaindu beharrekoak, baina, zorionez, Mendaroko herriak bikain erantzun du aurten ere.

Beraz, lehenengo eta behin, eskerrrik asko zuen onena eman duzuen boluntario guztioi, bai eta Mendaroko Udalari ere, bereziki mendi garbitzen egindako lanagatik. Laguntzaile eta babesle izan zaituztegun gainerako erakunde eta enpresei, beste horrenbeste, zuen bultzadarik gabe ezinezkoa zatekeelako, ilusio hutsarekin gauza gutxi lor baitaitezke gaur. Eta mila esker, era berean, baserriarroi eta lur jabeoi, zuen parajeak aurretiaz markatzen laga eta egunean bertan zuen abelburuen bazkalekua korrikalarientzako libre lagatzeagatik. Aurten, lasterketa *streaming* bidez emateko saiakera ere egin dugu estreinakoz, sei leku finkotan sei kamera jarrita. Joseba eta Jon Abad anaiek antolatuta zuten sistema informatiko guztia. Lan bikaina zuena, mutilak! Zuei

esker zuzenean ikusi ahal izan genuen lasterketa osoa helmugan. Zoritxarrez, baina, emisioa eten egin zigun Youtubek, baimen kontu bategatik, eta antolakuntzakook baino ezin izan genuen zuzenekoaz gozatu. Pena. Beti dago zerbait fintzeko eta ikasteko, baina, hala ere, pozik gaude hamalagarrenak eman duenarekin. Hustuta amaitu dugu, baina hartuko dugu indarra urtebetean. Datorren urtean ere hor izango zaretelakoan, izan ondo!

Maiatzaren 1ean, Iruñera

DEBABARRENEKO KONTSEILU
SOZIALISTA

Mendebaldeko Imperialismoa bere gainbeherari aterabide gerrazalea ematen ari zaio. Ameriketako Estatu Batuak eta Israel buru dituen Mendebaldeko oligarkia mundu erdia txikitzen ari da, eta beste erdia krisialdi betean sartzen. Europako Batasuna erabat menderatuta dabil bide-orri horretan. Aldian aldiko azken egonkortasun fasearen ondoren, kapitalismoaren aurpegi gordinena ikusten ari gara.

Euskal Herriko Kontseilu Sozialistatik, munduko langileria gerrara eta pobrezia daraman gerra inperialistaren aurka eta alternatiba sozialistaren alde hartuko ditugu kaleak maiatzaren lehenean, Langileen Nazioarteko Egunean.

Eskualdean, Kubara bidaltzeko material bilketak

antolatuta ditugu astebururako, eta baita maiatzaren lehenean 12:30ean Iruñeko Foruen Plazatik abiatuko den mobilizazioa joateko kotxe-kedadak ere. Hauek dira deialdiak:

- Deba: 10:00etan, pasealeku estalian.
- Mendaro: 10:00etan, sarrerako aparkalekuan.
- Eibar: 10:15ean, Ego Gainen.
- Ermua: 10:30ean, Kaltxangoko autobus-geltokian.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). BARRENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturunea 3-3, 20870 Elgoibar / barrena@barrena.eus

Barrena[®]
DEBABARRENEKO
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria
Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.

Erredakzio batzardea
Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Izaro
Aulestiarte.
Kazetariak
Ainara Argoitia, Ainhoa
Andonegi, Alex Turrillas, Ander
Gomez, Asier Orbea, Egoitz
Unamuno, Izaro Aulestiarte,
Nerea Bedialauneta, Ubane
Madera.
Diseinu arduraduna
Oier Larreategi.
Zuzentzailea
Sergio Azkarate.
Kidetz eta banaketa
Alex Turrillas.
Maketazioa
Zaloe Arnaiz, Oier Larreategi.
Publizitatea
Leire Rubio.

HARPIDETZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA
Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA
Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZKO EGOITZA
Soraluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025
ISSN: 3101-2647
Tirada: 10.500 ale
Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako
Udala



Elgoibarko
Udala



Ermuko
Udala



Mallabiko
Udala



Mendaroko
Udala



Mutrikuko
Udala



Soraluzeko
Udala



40 urte bete ditu Elgoibarko gaztetxeak

Ospakizunetan murgilduta dabil Gazte Asanblada, eta urteurrenari lotuta hainbat kontzertu antolatu dituzte dagoeneko

Ainhoa Andonegi

1986an hartu zuten herriko gazteek Maalako parkean zegoen eraikinaren beheko solairua. Haurtzaindegia izan zen garai batean, eta ballet eskolak ematen zituzten bigarren pisuan. Behean, gazteak bildu eta antolatu ahal izateko gaztetxea atondu zuten. Iñaki Kortabitarte (Elgoibar, 1967) eta Josu Goñi (Elgoibar, 1971) lehenengo Gazte Asanblada hartan ibilitakoak dira. Okupazioan ez zuten parte hartu, baina handik gutxira sartu ziren asanbladan. Haien ahotik egin dugu denboran atzera, Elgoibarko gaztetxearen sorreraraino.

Okupazioaren aurretik, Elgoibarko hainbat gazte hasita zeuden Udalarekin harremanetan, eta bazirudien lortuko zutela gazteentzako lokalen bat, baina prozesu hark ez zuen fruiturik eman. "Hala azaldu zidaten niri", adierazi du Kortabitartek. "Ustedut Santa Klarako *txanpiñoia* eskaini zuela Udalak", gaineratu du Goñik, baina hura ez zitzaizen gune egokia iruditu.

Gogoratzen dute garai zailak zirela haiek gazteentzat: "Ez zegoen ezer gazteentzat. Tabernak soilik zeuden; ez kiroldegirik, ez kultur etxerik... Langabezia-tasa handia zegoen, eta eskolak kanpoko jarduerak urriak ziren", dio Goñik. Beraz, gazteak udaltxeko arkupean biltzen ziren, eta han egoten ziren, plazan, orduak eta orduak. Bilgune bat behar zutela erabaki zuten: bazituzten ideiak, bazuten gauzak egiteko gogoak, antolakuntzarako grina ere bai... "Gazteen alde lan egiteko antolatu ziren".

1986ko abuztuaren 18an hartu zuten Maalako eraikina, gaztetxe bihurtzeko. Atzeko leihotik sartu ziren barrura, eta garbi-

keta lanetan hasi ziren. "Kokapena zoragarria zen", esan dute, nostalgiaz. "Herrigunean bertan zegoen, eta kanpoan parkea egoiteak gauza askotarako ematen zuen aukera". Hain zuzen, horixe egin zuten gazte haiek, gauza asko. Antolatu zituzten kontzertuak, hitzaldiak, tailerrak, antzerkiak, txotxongiloak, aire zabaleko zinema-emanaldiak Ongarrirekin... "Lagun batek ezagutzen zituen Arantzazuko fraideak, eta handik ekarri genituen aire zabaleko emanaldietarako aukeriak", gogoratu dute, umorez. Garaiko gai sozialei buruzko hitzaldiak ere antolatu zituztela gogoratzen dute, feminismoari buruzkoak, hitzaldi internazionalistak, Nikaragua... "Ordura arte itxita zeuden ate asko zabaldu genituen, eta talde antimilitarista eta intsumisio taldea ere han sortu ziren".

Izen handiko musikariak ere pasatu ziren handik: Hertzainak, Barricada, Sutagar, Rip, Cicatriz, Platero y tu... Garaiko musika talderik entzutetsuenak izan ziren Elgoibarko gaztetxean, eta guztira 130 bat kontzertu antolatu zituzten. "Finantzaketa? Beste garai batzuk ziren. Sarrera kobratzen genuen, eta lortutako dirua ematen zitzaion, eta beste askorik ez. Barricadaren kasuan, ontzi batean zegoen bildutako dirua, eta ustedut kontatu ere ez zutela egin", esan dute. Ion Maia bertsolaria ere pasatu zen gaztetxe hartatik,

1986an okupatu zuten Maalako eraikina, gaztetxea sortzeko, eta 1992an eraitsi zuten



Elgoibarko estreinako gaztetxea, Maalako parkean, 1986an. JUSTO ARRIOLA

eta bertso saio hartan ezagutu zuten Fermin Muguruza, gerora lagun izango zuena.

Oroitzapen gazi-gozaok

Gaztetxean egindako lanaz eta mugimenduak eman zuten guztiaz oroitzapen oso onak dituzte, baina garai hartako gizartean haiek zuten irudia ez zen ona, eta estigmatizatuta zegoen gaztetxearen bueltan sortzen zen guztia. Guardia Zibilaren kuartela zegoen San Roken, eta diote tarteka jaisten zirela guardia zibilak, sarekadak egitera. "Heroinak min handia egin zuten Elgoibarren, herriko gazte asko hil ziren, eta herrian zabaldua zegoen gaztetxean droga mugitzen zeneko ideia, denok jakin arren droga beste gune batean zabaltzen zela". Kontzerturen batzuk sabotatzeko saiakerak ere izan zituztela azaldu dute: "Argindarra kentzen ziguten, baina farolen batetik-edo hartuta lortzen genuen kontzertuek aurrera egitea".

1991ko maiatzaren 9an bota zuten gaztetxea, Jose Inazio Elkoroiribe alkate zen agintaldian. 1993ko abuztuan, Aita Agirre eraikin zahararen sartu ziren gazteak, sanbartolomeak hasi aurretixoan. Bi egun iraun zuten okupazioak: ertzainek atera zituzten handik gazteak, negarra eragiteko gasa erabilia. Zortzi gazte atxilotu zituzten, eta bik tratatu txarren



Iñaki Kortabitarte eta Josu Goñi. A.A.



1987an, Brasilgo Colera taldearen kontzertua. JUSTO ARRIOLA

kontrako salaketa jarri zuten. Epaiketa irabazi zuten gazte haiek. 1996ko abenduaren 28an, Alkorta enpresaren eraikin zaharra hartu zuten, Maalan, baina otsail hasieran bota zituzten handik. 1997an, Jarbe enpresak Pedro Mugurutzan

zeukan lokala utzi zien Udalak, eta urte batzuk egin zituzten kokapen hartan gaztetxeak, kalea eraberritu zuten arte. Urte batzuk gaztetxerik gabe egon zen herria, eta 2007a ezkerro Sutegixan biltzen da Gazte Asanblada.

NIRE USTEZ

Futbola



ALAITZ ALMORTZA
IRAKASLEA

Asteburu luzea izan dugu berriki: larunbat gauean izandako lorpenak asteleheneko ospakizunera arte egin du bidea eta seguru nago makina batek astea gogotsu hasi duela, aspaldiko partez. Egun hauetarako eguraldia ere aldeko jarri dela dirudi. Azalpen gehiago eman gabe, nire gaurko gogoetan hizpide izango dudana gaia zein den argi geratu dela uste dut. Hala ere, despistatuenez, hementxe erantzuna: futbola.

Asteburua pasatu dut etxetik kanpo; baina ez, ez naiz Sevillan egon. Ez diot Realeko gizonzkoek

jokatutako finalari jaramonik egin; baina bai, amaierako emaitzaren berri izan dut partida amaitu bezain pronto. Mundua Cartujaren inguruan biraka ibili da, eta gu haren inguruan, nahi eta nahi ez.

Niri futbola txikitatik gustatu izan zait, bai ikusteko eta baita jolasteko ere. Oraindik ere gustatzen zait futbola bera, kirol gisa. Baina gero eta atxikimendu txikiagoa daukat gure inguruan hainbesteko eragina duen futbol

"Mundua Cartujaren inguruan biraka ibili da, eta gu haren inguruan, nahi eta nahi ez"

profesionalarekin. Izan ere, gizonzkoen futbol profesionalaren egituraren zerbait berria ulertzen dudana aldiro, futbolagandik gehiago urruntzen naiz, ez baita nire gustukoa ikusten dudana hori.

Futbola ez da futbola bakarrik, esan izan didate. Eta bai, guztiz ados nago, kirola baino askoz gehiago da.

Hau guztia esanagatik ere, partidarekin poztu diren ingurukoak ikusita poztu naiz ni ere, hedabideetan ikusitakoaz hunkitu naiz apur bat, eta sare sozialetan finalari buruzko edukiak ikusten jardun dut nire kasa. Ondorioz, aste hauetan ikusitako guztiak nire futbol dosia bete duela esango nuke; ezin jakin, ordea.



SEMAFORO

Gau ahaztezina



"Sekulako giroa izan zen zapatuan Maalan. Egun osoan nabari zen giro berezia herrian, eta Maalan bizi izan genuena ez zaigu berehalakoan ahaztuko. Eskerrak eman nahi dizkiet Jotasua peñari eta egitasmoaren sustatzaile izan ziren gainerako taldeei, eta baita Udalarari ere, pantaila handia jartzea ahalbidetu zuelako. Aupa Reala".

Espaloia, oso irristakorra



"Trenbide kaleko espaloia oso irristakorra da, eta euria egiten duenean oso arriskutsu jartzen da. Herritar bat baino gehiago erori izan da espaloian labainduta, eta min hartu izan dute. Santa Ana kaleko biribilgunetik tren-geltoki ingururainoko espaloian zerbait egin beharra dago, lurzorua seguruagoa izan dadin. Eskerrik asko".



"Gauetan ikaratzeko moduko oihuak entzuten dira Toletxe eta Gabriel Krutzelaegi kaleetan. Bero egiten hasi da, eta leihoak zabalik egiten dugu lo askotan, baina jendearen oihuek ez digute atseden hartzen uzten. Gaueko orduetan isiltasuna behar da, eta hori errespetatzeko eskatu nahi nuke. Udaltzainak egunez ibiltzen dira auzoan bueltaka, eta eskertuko genuke gauetz ere ibiliko balira".

elgoibar@barrena.eus / 688 65 56 58

GARAI BATEAN

1956a



Aste honetako erretratu zaharra Antonio Arrillagak bidali du gure erredakziora. Ezer gutxi daki argazkiari buruz, eta, bertan azaltzen diren emakumezkoen artetik, haren izeba soilik

ezagutzen du, Eva Ibarluzea. Hori bai, 1956an ateratako erretratua dela badaki, haren atzean ageri delako data, baina non ateratakoa den ez daki seguru. Beraz, norbaitek

argazkiko emakume gehiago ezagutuz gero, bidali informazioa elgoibar@barrena.eus helbide elektronikora, eta webgunean argitaratuko dugu informazio osatuagoa.

Legebiltzarreko agerraldia "etsigarria" izan dela adierazi du Geltokia Bai plataformak

Apirilaren 14an egin zuten agerraldia, eta "haserre" itzuli ziren

Ainhoa Andonegi

Apirilaren 14an, Eusko Legebiltzarreko Mugikortasun Batzordean hartu zuten parte Altzolako tren-geltokiaren aldeko plataformako ordezkariak. Oraindik ere hamaika galdera erantzuteke daudela diote, eta galdera horien erantzun bila jo zuten Legebiltzarrera; hala ere, ez zuten erantzun bakar bat ere jaso.

Hori dela eta, "haserre" itzuli dira Altzolako bizilagunak, eta agerraldia "etsigarria" izan zela azaldu dute. Haien iritziz, EAJko eta PSEko ordezkariak "gidoia etxetik" idatzita agertu zirenen bilerara, "gizatasunik gabe, eta mugikortasun iraunkorrekiko konpromisorik gabe", nahiz eta batzorde hori ordezkatzeko erabiltzen duten. Azaldu dute aurrez prestatutako mitin bat bota zutela EAJko ordezkariak, "hitzak baino ez", eta gaineratu zieten Elgoibarko Udalarekin elkarlanean ari direla Altzolako bizilagunei zerbitzu alternatiboren bat emateko, baina diote "berriz ere" bizilagunak ahaztu egin dituztela: "Behin deitu ziguten, duela bi urte. Esan genien ez genuela zerbitzu hori guretzat bakarrik ikusten, linearen beste erabiltzaile batzuk baino ez gara, eta ez dugula bereizketarik sortu nahi



Altzolako kideak. GELTOKIA BAI

bizilagunen artean. Egun daukagun zerbitzua mantentzea soilik nahi dugu, daukagunari eustea, eta gogora dezatela, mantendu ez ezik, hobetu egingo zutela agindu zutela".

PSEko ordezkariari buruz esan dute orain dela hamabi urte erabili zuten diskurtso bera irakurri zuela bileran, "baina oraingoan, geltokia ahaztu zitzaion". Altzolako kideek leporatu zieten detaile horrekin haien alderdikideek esandakoa zalantzan jartzen ari zirela, baina "belarri batetik sartu eta bestetik irteten zitzaien guk esandakoa". Horrez gain, Altzolako geltokia ez dela erabiltzen aurpegiatu zietela adierazi dute. EH Bilduko eta PPko ordezkariak geltokiaren aldeko jarrera erakutsi zuten,

eta bat egin zuten Debabarreneko bizilagunen eskaerarekin. Batzarraren amaieran, geltokiaren alde batu dituzten 5.568 sinadura erregistratu zituzten.

Aurrera begira

Altzolako kideak minduta daude, lehen PSEk geltokiaren alde egin zuelako, baina orain "EAJ-ri men egin eta denak geltokia kentzearen alde" batu direlako. Aurrera begira, Legebiltzarren osoko bilkuran legez besteko proposamena aurkeztea aztertzen ari dira, alderdi guztiek bozkatu dezaten: "Hala ere, beldur gara, uste dugulako zerbitzu publikoen kontra agertzea ere berdin-berdin zaiela". Bide judiziala ere hor dagoela gogoratu dute.

tik 20:00etara. 16 urtetik gorako gazteek hartu dezakete parte, eta asteka edo hilabete osorako eman daiteke izena. Astebeteko prezioa 40 eurokoa da, eta hila-betekoa, aldiz, 160 eurokoa. Maiatzaren 10era arteko epea dago izena emateko. Interesatuek nualaelkarte@gmail.com helbidera idatzi dezakete.

Bost pieza joko dituzte guztira: *Gernika* (Pablo Solozabal), *Casiopeia* (Carlos Marqués), *Excerpts from the firebird* (I. Stravinsky), *Gladiator* (Hans Zimmer. Arr. Massimiliano Legnaro) eta *Bachus dios del vino* (Ferrer Ferran). Oraingo honetan, Juanma Saez Etxabek zuzenduko du emanaldia.

Aniztasun funtzionala duten gazteentzako udalekuak, martxan

Aniztasun funtzionala duten gazteentzako udaleku irekiak antolatu ditu Nuala elkarteak, Elgoibarko Udalarekin elkarlanean, eta dagoeneko zabalik

dago izena emateko epea. Uztailaren 1etik 30era eta abuztuaren 3tik 27ra egingo dituzte udalekuak, astelehenetan, asteazketan eta ostegunetan, 17:00eta-

Udal Musika Bandak kontzertua emango du domekan

Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua emango du domekan, Herriko Antzokian, 12:30ean hasita. Kontzertu berezia eman-

go dute oraingoan; izan ere, Pablo Solozabalen *Gernika* piezan Udal Txistulari Taldeak ere hartuko du parte.

Asteburuetakoko menu berezia, eguneko platera, plater konbinatuak, errazioak, ogitartekoak...
Egunero zabalik
Plaza Zaharra (Soraluze) Erreserbak: 638 91 15 97

Itxura ona duela eman arren, hortza galtzeko arriskua izan daiteke

Izan ere, arazoa beti ez da hortza bera izaten. Batzuetan, hortzaren oinarria egon daiteke kalte-tuta. Oinarri hori ahultzen bada, hortzak egonkortasuna galtzen du, eta hor hasten dira arazoak. Horregatik, hortzoiak ondo daudela egiaztatzea hortzak ondo daudela egiaztatzea bezain garrantzitsua da.

Hortzoiak zaintzeko aholkuak:

- Ahoko higiena zaindu, egunero
- Egin kasu zehaztutako mantentze-planari
- Ohitura osasuntsuak izan
- Noiz izan zen hortzoiaren azterketa egin zenuen azken aldia?

Aldatz hortz kliniketan, osasun periodontala baloratzen dizugu doako azterketa batean.

San Bartolome, 22 - Elgoibar
lyd@dentalaldaz.com 943 366 377

Mayi Mujika izan da azkarrena Gabiriako Leharrei Mendi Lasterketan

Leharrei Mendi Lasterketa jokatu zuten zapatuan

Asier Orbea Ostolaza ELGOIBAR

Bi ibilbidetan lehiatzen dira mendi lasterkariak Leharrei Mendi Lasterketan; hain justu, 15 eta 24 kilometroko probetan. Lasterketa luzeak 1.300 metroko desnibel positiboa du, eta Aizaleku (809 metro) eta Otañu (838 m) gaineratutik igarotzen da. Ibilbide luzeko lasterketan 146 korrikalarik hartu zuten parte, eta 98k motzean. Emakumezkoetan, Domusa Teknik Lana taldeko Mayi Mujika elgoibartarra izan zen azkarrena, 2.26.09ko denbora eginda. Mujikak minutu bat eta 5 segundoko aldea atera zion helmugan bigarren postuan ailegatu zen Irati Zubizarreta beasaindarri (2.27.14).

Debuta egin zuen lasterketa

Mayi Mujikarentzat esanahi bereziko lasterketa da Leharrei,

mendi lasterketetan debuta egin zuen proba baita: "Nire lehenengo mendi lasterketa izan zen, duela 9 edo 10 urte. Mutil-lagunarekin batera egin nuen, baina lasterketan beharrezko martxan hartu genuen parte, oinez. Las-

terka aurtengoa izan da aurrenekoa". Aldapa handiagoko ibilbideak nahiago dituen arren, Mujikak ondo zukutu zuen zatirik aldapatsuenek eskaini zioten aukera, haietan atera baitzuen aldea aurkariei.



Emakumezkoen podiuma osatu zuten hiru lasterkariak. AIMAR MAIZ

Mintxetako atletek emaitza onak lortu dituzte Gipuzkoako txapelketan eta Leitzan

Taldeakide gutxi izanagatik, emaitza onak lortzen dihardute

Asier Orbea ELGOIBAR

Batetik, Mintxeta taldeko ordezkari Markel Amutxastegi Yaza aire zabaleko Gipuzkoako Atletismo Txapelketan lehiatu zen zapatuan, apirilaren 18an. Arrasateko Mojategi kirolgunean jokatu zuten Gipuzkoako txapelketan 16, 18, 20 eta 23 urtez azpikoak eta Master mailako kirolariak lehiatu ziren. Amutxastegi 1.500 metroko lasterketan lehiatu zen, 23 urtez azpikoen mailan, eta hirugarren postuan sailkatuta podiumeko hirugarren koskara igo zen. Anwar El Hassouni Benaissa gailendu zen proba hartan, orain Eibarren bizi den elgoibartarra. El Hassounik Eibarko Klub Deportiboa ordezkatu zuen.

Leitzako Herri Krosa

Bestetik, Idoia Nogales Alberdi Leitzako Herri Krosean lehiatu zen zapatuan, eta emakumez-

korik azkarrena izan zen bost kilometroko ibilbidean. Antxitxikari debarak 18 minutu eta 30 segunduan osatu zuen ibilbidea. Enea Erkizia Amoroz doneztebearra sailkatu zen

bigarren postuan (20.13). Gizonezkoetan Raul Amatriain Arraiza (Uitzi) gailendu zen. Guztira 211 lasterkarik hartu zuten parte Leitzako Herri Krosaren 44. edizioan.



Idoia Nogales gailendu zen Leitzako Herri Krosean. MINTXETA AT

Zabalik dago Kirol Udalekuetan izena emateko epea

Asier Orbea

Ekainaren 22tik uztailaren 18ra egingo dute Udako Kirol Campusa, eta ekainaren 5a da izena emateko azken eguna. Bi modalitate eskaintzen dituzte: Kirol Udalekua, 2014-2019 urte bitartean jaiotakoentzat, eta Goi Mailako Kirol Udalekua, 2010-2013 urte bitartean jaiotakoentzat. Biak

astelehenetik ostiralera egingo dira, 09:30etik 12:30era. Besteak beste, atletismoa, futbola, herri kirolak, padela, tenisa, patinajea, eskubaloia, mendi irteerak, saskibaloia, spinninga, zumba, eskalada, bizikleta, *Altxorraren bila...* egingo dituzte. Bazkideek 130 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 142 euro.



Askotariko kirolean aritzeko aukera izango dute gazteek udan. BARRENA


48 lagun ari dira lehiak plazako pala txapelketetan

Asier Orbea ELGOIBAR

Jada jokoan dira Lagunak Pilota Eskolak antolatzen dituen emakumezkoen zein gizonezkoen bikotekako pala txapelketak. Hamasei bikotek eman dute izena gizonezkoen eta zortzi bikotek emakumezkoen. Lehen aldiz arituko dira emakumezkoen lau bikote, eta jokalariek berriak lehiara batzea berri pozgarria dela azpimarratu dute antolatzaileek, txapelketa herrikoia izatea baita euren helburua. Iazkoan baino sei bikote gehiago parte hartzen ari dira aurten.

Ligaxka

Txapelketaren hasieran bikoteek elkarren kontra jokatu beharko dute, ligaxka sisteman. Eguenetan eta domeketan jokatuko dituzte partidak, Kalegoen plazako frontoian –euria bada, Ikastolako frontoian–. Maiatz erdialdera arte iraungo du ligaxkak, eta handik aurrera hasiko dituzte kanporaketak. Finalak ekainaren 19an jokatuko dituzte.



Ander Conde, iazko finalean. BARRENA

Ehunka lagun korrika Ikastolak antolatutako Jose Gurrutxaga krosean

Elastiko arrosa jantzita, Euskararen alde egin zuten korrika 700 bat lagunek domekan

Ainhoa Andonegi


Eman aurpegixa, euskararen alde lemapean, marea arrosak hartu zuen kalea joan zen domekan, Elgoibar Ikastolak antolatutako Jose Gurrutxaga krosean. Ehunka lagunek hartu zuten parte, eta giro bikaina izan zen herriko erdigunean. Kirola eta euskara uztartzen ditu ekimen horrek, eta, hain zuzen ere, aurten ere askok egin dute korrika euskararen alde.

Lasterketak, mailaka

10:00etan hasi zuten lasterketa HHko umeek. Txikienek gurasoek lagunduta egin zituzten Armuetatik Kalegoen plazarainoko metroak, eta 5 urtekoek Kalebarren plazan egin zuten korrika, inoren laguntzarik gabe. 10:30eko kanpai hotsarekin hasi ziren LHkoen lasterketak. Mailaka eta sexuka banatuta, LH1 eta LH6 arteko lasterketa guztiak jokatu zituzten, eta hainbat lasterketatan lehia bizia izan zuten

parte-hartzaileek. 12:00etan iritsi zen nagusien txanda; DBHko ikasleek eta gainerako herritarrek batera egin zuten korrika. Nuala elkarteko kideek ere parte hartu zuten.

Sari banaketan Udaleko, Ikastolako eta Danobateko ordezkariak hartu zuten parte, eta baita Jose Gurrutxaga zenaren etxeok ere. Parte hartzaile guztiak jaso zuten domina, baita txikienek ere, eta LH5etik aurrerako irabazleei garraikurra ere eman zieten.





Jon Gurrutxaga, erdian. JAIRO BERBEL

Sugramas taldeak bi kantuz osatutako 'Black Storm saioak' lana kaleratu du

Oraingo, sarean bakarrik dute entzungai lana, taldearen Bancamp orrian

Ainhoa Andonegi

Hainbat urtez geldirik egon ostean, joan den urteko udaberrian jarri zuen martxan berriro Sugramas proiektua Jon Gurrutxaga elgoibartarrak, eta orain *Black Storm saioak* izeneko lana argitaratu du, sarean, bi kanturekin: *Lubaki izakiak* eta *Erretratu bat*.

Sugramasen bidaia berri horretarako, musikaren munduan egin duen ibilbidean ezagutu dituen lagun zahar eta berriak ditu ondoan Gurrutxagak: Miguel Moral baxu-jolea (Positiva, Rapida), Andoni Etxebeste batera-jolea (Señor No, Chico Boom, Belar Hostoak) eta Xabier Badiola gitarrista (The Mood Rings, Sotomonte). Hitzetarako, Xabi Lasarengana jo du berriro Elgoibarko musikariak.

Taldeko kide izan zen Ekaitz Garmendiaren eskutik grabatu

dute single berria, Karrantzako Black Storm estudioetan. Bi kantuk zuzeneko estiloan grabatu zituzten urtarrilaren 10ean eginiko grabaketa-saioan, eta bideoan ere jaso zituzten, Jairo Berbel elgoibartarrak hartutako irudiekin. Oraingo, sarean bakarrik dute entzungai lana, Sugramas taldearen Bancamp orrian: <https://sugramas.bandcamp.com>. Aurreratu dutenez, formatu fisikoan ere argitaratuko dituzte kantok, aurrerago.

Ibilbide oparoa

Arima Beltza, Andrakan eta Uek taldeetan aritu eta gero, musikari elgoibartarrak 2010ean sortu zuen Sugramas proiektua, haren kantu rockeroenak taularatzeko asmoz. Gaztelupeko Hotsak zigituarekin argitaratu zuen diskoa,

Jon & Sugramas gisa. Lan hura makina bat zuzeneko emanalditan ezagutzera eman ostean –eta taldekideen artean hainbat aldaketa izan eta gero–, proiektua albo batera utzi zuen, bakarkako bideari ekiteko, "era intimistagoan eta akustikoagoan", haren berbetan. Harrezkero, Gurrutxagak bi disko kaleratu ditu, eta, besteak beste, 1978an Txomin Artolak kaleratu zuen *Belar hostoak* lana berrinterpretatu du Urbil Artolarekin batera, kantu haiek berriro grabatuz eta taularatzuz. Tarteka, gitarra elektrikoa eskuetan hartzeko beta ere izan du kantu berriak sortzeko, eta horrek eraman du, hain zuzen ere, berriro taula gainera: 60ko eta 70eko hamarkadetan egiten zen musikaren eragin nabarmena duen haren alderik rockeroenera.

Sakelako telefonoaren erabileraz tertulia, gaur, Telmo Lazkanorekin

Elgoibarko Amataumobila taldeak sakelako telefonoaren erabilera egokiari buruz berba egiteko saioa antolatu du gaur arratsalderako. Telmo Lazkano aditua gonbidatu dute, eta hark emango ditu telefonoa etxean modu egokian erabiltzeko tresnak eta estrategiak. LH4 eta DBH1 arteko seme-ala-

bak dituzten familientzako saioa prestatu dute. Antolatzailleek esan dute kafea eta pastak jarriko dituztela eta giro atseginean egingo dutela berbaldia. Saioaren helburua da ideiak partekatzea eta zailtasunak argitzea. 17:30ean izango da, Aita Agirre kulturguneko areto nagusian.



Telmo Lazkano. SAREA

Bizitzarako tresnei buruzko hitzaldia, gazteentzat

Treba Gazteak programaren barruan, *Bizitzarako tresnak, zure bidea indartu* izeneko hitzaldia antolatu dute, 17 eta 24 urte bitarteko gazteentzat. Apirilaren 29an izango da, 17:30etik 20:30era, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Saioa Powering Education erakundeak emango du. Parte-hartzea doakoa da eta izen-ema-

tea honako helbide honetan egin daiteke: gip.eus/k1ag3.

Treba Gazteak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gazteria Sailaren eta Elgoibarko Udalaren ekimena da, gazteei tresna praktikoak eskaintzeko beren ibilbide pertsonala eta profesionala indartzeko. Elgoibarko Udalak gazteen ongizatea eta garapen pertsonala "lehenetasun estrategikotzat" hartzen ditu, eta adierazi du konpromiso horrekin jarraituko duela aurrerantzean ere.

EXPRESS ESKAINTZAK!

BOSCH WUU24T65ES
ARROPA GARBIGAILUA

539 € **A++**

- 9kg-ko karga
- 1200 bira/min
- Amaiera geroratu, 24 ordura arte
- Etenaldiaren funtzioa + karga
- Eco silence motorra

MILARBIRE Ubitarte, 11 - 943 741 487
bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

LAGUNAK
colaboradora textil hogar

Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?

Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neumina. Jantzizintzarako makina bereziak ditugu, edozein ehun konpondu ahal izateko: Puntuzko ehunak, tximindularitzako mailotak eta kuloteak, larrua, zeta eta aber luze bat.

Komertzioekin lan egiten dugu
(etxeko ehungintzeekin ta jantziekin) **TARIFA BEREZIAKI!**

San Roke kalea, 20 - ELGOIBAR - 943 744 457 / 685 756 978
www.textillagunak.com

Barrena
GEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

943 743 704
688 769 657

Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENA astekarian
edo
www.barrena.eus
webgunean

Pintxo dastaketa antolatu du Udalak astebururako

Herritarren artean bi sari zozkatuko dituzte

Ainara Argoitia MENDARO

Hiru eguneko pintxo dastaketa antolatu du Mendaroko Udalak ostalariekin batera. Gaur hasi eta igandera bitartean, propio dastaketarako sortutako pintxoak emango dituzte herriko lau tabernatan: Aitzbeltzen, Ormolan, Txirristakan eta Uztargin. Gaur, 19:00etan hasiko dira pintxoak eskaintzen, eta herritarrek 21:00ak arte probatu ahaliko dituzte beren-beregi egunotarako sortutako mokaduak. 19:00etan, gainera, Joselontxos txaranga-koek kalejira hasiko dute Or-

mola parean, eta tabernaz taberna arituko dira jotzen. Bihar eta etzi, berriz, eguerdi partean egingo dute dastaketa, 12:00etatik 15:00etara.

Aurreko urteetan bezala, bozketak ere antolatu du Udalak. Herritarrek beren gustuko pintxoak zein izan den aukeratu ahal izango dute, tabernetan jarriko diren txarteltxoak beteta, eta parte hartzen duten guztien artean bi sari zozkatuko ditu Udalak. Zozketako irabazleak Landa erretegiaren bi lagunentzako bazkaria irabaziko du, 200 euroko



Pintxo bat. ARTXIBOKOA

balioduna. Bigarren sarituak, berriz, Luzaide tabernara debalde bazkaltzera joateko txartela irabaziko du. Bi lagunentzako bazkaria izango da Luzaidekoa ere, 100 euroko balioduna.

Julen Osa eta Nile Agirretxe garaile infantilen txirrindularitza lasterketan

Alebinetan, Julen Zinkunegi eta Maddi Agirretxe izan dira azkarrenak

A.A. MENDARO

Eskolarteko txirrindulari lasterketak jokatu zituzten zapatuan Mendaroko Erramone Industrialdean, Elgoibarko Lagun Taldekoek antolatuta. Alebinak eta infantilak lehiatu ziren, nor bere multzoan, baina benjaminek ere izan zuten zirkuitua probatzeko aukera.

Kilimon Trail lasterketa zela eta, ordu erdi atzeratu zituzten lasterketa guztiak antolatzaileek, eta 16:30ean hasi beharrean 17:00etan hasi zuten jardunaldia. Hasteko, benjaminei eman zieten zirkuitua probatzeko aukera, nahiz eta eskolartekoen lasterketetatik kanpokoa izan haiena. Bi buelta eman zizkieten zirkuituari benjaminek, eta haien ondoren alebinen txanda izan zen. Alebinetan, Julen Zinkunegi Alberdi (Peña Elortza) eta Maddi Agirretxe Ayala (Dorletako ama) gailendu ziren. Mutiletan, Elgoibarko Lagun Taldeko Iker Barrueta Zubiaurrek eta Eñaut Lizarralde Iñurategik (Aloña Mendi) osatu zuten podiuma. Ozta-ozta irabazi zuen Zinkunegik, esprintean. Alebin mailan, nesketan, berriz, podiuma osatu gabe gelditu zen, parte-hartzeagatik,



Alebinen eta infantilen podiuma osatu zuten lagunak, elkarrekin, beste taldekide batzuk ondoan hartuta. NAHIARA MUGERTZA

baina Kattalin Urzelai Ugarte (Aloña Mendi) igo zen bigarren koskara. Alebinek egin beharreko lana zera izan zen: zirkuituari hiru itzuli egitea.

Infantiletan, berriz, Julen Osa Aizpuruk (Peña Elorza) eta Nile Agirretxe Ayalak (Dorletako ama) irabazi zuten lasterketa. Mutiletan, Jon Salaberria Iza-

girre (Goierrri KE) eta Xabat Aizpuru (Peña Elorza) bigarren eta hirugarren sailkatu ziren. Nesketan, berriz, Nora Olaizola Seguro (Peña Elorza) eta Irati Jausoro Aginagalde (Aloña Mendi) igo ziren podiumera, Nile Agirretxe irabazlearekin batera. Infantilek zazpi itzuli eman zizkieten zirkuituari.

Jaietako kartel lehiaketa, martxan

Santa Ana jaiak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak. Herrian erroldatutakoek parte hartu ahal izango dute, eta maiatzaren 29a arteko epea dago lanak aurkezteko. A3 tamainako kartelak izan beharko dute, formatu bertikalekoak, eta nahi den teknika erabili ahal izango da haiek sortzeko. Kartelean, baina, honako testu honek agertu beharko du, ezinbestean: *Mendaro Santana Jaiak 2026. Uztailak 18-19-24-25-26*. Testu osagarriren bat gehitzekotan, euskaraz idatzia izan beharko du. Lan guztiek jatorrizkoak eta beste inon argitaratu gabeak izan beharko dute eta irabazleak 300 euroko saria jasoko du. Jakingarri gehiagorako: mendaro.eus.



AINARA ARGOTIA

Mendaroko bertso eskolakoak, Gelatik Plazarako finalean

A.A. MENDARO

Mendaroko bertso eskolako hiru ikaslek Gelatik Plazara sariketako finalean kantatu zuten joan den zapatuan, Lazkao: Laiene Urkiak, Anitz Ezenarrok eta Hiart Larrañagak. Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak bertso eskolekin elkarlanean antolatzen duen ekimena da Gelatik Plazara, eta aurten goa laugarren edizioa izan da. Sariketako bertso-eskoletako 14 urtez azpiko ikasleek parte hartu dezakete, eta bi maila bereizten dituzte: LHkoena eta DBHkoena. 2-4 laguneko taldeetan parte hartzen dute, eta, Bertsozale Elkartearen esanetan, bi helburu ditu sariketako: ba-

retik, tokian tokiko bertso eskolak saio berean elkartu eta elkar ezagutzeko aukera ematea bertsozale gazteentzako; eta, bestetik, jendaurrean kantatzeko aukera ematea. Guztira, 250 bat bertsozale gazte parte hartu dute, eta Mendaroko taldea zuzenean sailkatu da finalerako, Debabarrena ordezkatzuz.

Joxe Migel Iztueta *Lazkao Txiki* gogoan, haren jaioterrian antolatu dute aurten LHkoen finala, Gipuzkoako Bertso Eskolen Egunaren baitan, eta bertsoetan egin ez eze, beren adin-kideekin jolasteko aukera ere izan zuten gazteentzako, Bertsozale Elkarteak goiz osoko egitaraua antolatu baitzuen.



Laiene Urkia, Anitz Ezenarro eta Hiart Larrañaga. AINHOA GONZALEZ

Primavera Fest jaialdiak reggaeton doinuz beteko du plaza eta tabernetara eramango du robot argidunaren ikuskizuna

Bihar, zapatua, DJ jaialdi irekiaren laugarren aldia ospatuko da Ermuan, 'afterparty' eta guzti

Ander Gomez

Arratsaldean hasi eta apirilaren 25etik 26rako gau osoan doako DJ saioak egongo dira Orbe Kardinala plazan.

19:00etan hasiko da jaialdia, eta Danel Santiago eibartarrak nahastuko ditu lehen kantuak. Wonka bilbotarrak hartuko du lekukoa, herritarrak tech house eta pachanga estiloetara hurbiltzeko. Ondoren, Daaira eta Iker B ermuarrek igoko dira eszenatokia, eta reggaeton erritmo klasikoak ekarriko dituzte bueltan.

22:00etatik 23:00etara bitartean etenaldia egingo dute, eta Primavera Festen robot argiduna tabernaz taberna ibiliko da, tokiko ostalaritzari laguntzeko antolatutako ekintzan. Prezio jaitziera egongo da plazako barrako edarien eskaintzan eta azken txanpari ekingo diote.



Robot argiduna. MARCELO GALVAN

23:00etan, Dgabanna eta Roni Ross bilbotarrek hartuko dute kiosko eszenatokia. B2B formatuan arituko dira eta ordu eta erdi iraungo du saioak. 00:30ean, DJ Tinny mundakarrak itxiko du kartel ofiziala.



Iker Blazquez ermuarra, jaialdiaren sortzaileetako bat, 2024ko aldian. P.F.

'Afterparty'-a Sagarran

Baina festa ez da plazako programazioarekin batera bukatuko: 02:00etan hasita, Sagarra Gastro Pubera lekualdatuko da. Bertan, Daaira eta IkerB DJak berriro ere jarriko dira nahas-

te-mahaiaren aurrean, eta, lau orduz jarraian, azken doinuak jarriko dizkiote antolatzaileen ustetan reggaeton eta elektronikazaleen espektatibak gaindituko dituen laugarren hitzordutako berezi horri.

Apirileko Feria propioa izango du Ermuak

A. Gomez

Andaluziako Kultur Etxeak jai ugari antolatzen ditu urtean zehar: Andaluziaren Eguna, Aste Kulturala, Errozia... Orain, Sevillan Apirileko Azoka ospatzen ari dela, bertara joan nahi baina ezin dutenentzako "konponbidea" topatu dute: festa Ermura ekartzea. Zapatu hone-

tan izango da, egun osoko egitarau oparoa prestatu dute eta ekintza gehienak zentro parean izango dira, San Pelayon.

Umeek irekiko dute egitaraua, 11:00etan, Ekilore Akademiak emango duen bi orduko eskulan-tailerrean. Baina azokaren irekiera ofiziala eguerdian izango da, pregoiarekin batera.

Ondoren, ferriako pasaporte banatuko dute, eta 13:00etan, karro-potea flamenkoa egingo dute San Pelayoko tabernetan zehar. Ohiko herri bazkaria antolatutako beharrez, tapak eman dituzte: ganba-opilak, kazoia, txipiroiak... eta bestelako jaki andaluziarrak. Sagarrako Jesus Gonzalez sukaldariak prestatutako ditu, eta 13:30etik 15:30era bitartean dastatu ahal izango dira. 16:00etan, flamenko ikastaroa emango du Eva Rivero dantza-irakasleak. 17:00etan, sevillanen lehiaketa eta Fla-

menkoena desfilea egingo dituzte, eta 18:00etan, karro-potea errepikatuko dute. 19:00etan, Azahar taldearen ikuskizunak jarriko dio amaiera Sevillatik Ermura ekarritako festa alai eta koloretsuari.

Flamenkoz jantzeko deia

Kultur Etxeak herritar guztiak animatu ditu bertaratzera eta, posible izanez gero, flamenko jantzita agertzera. Opari sorpresa agindu dute Andaluziako jantzi tradizionala soinean daramaten guztientzat.



Eva Riveroren ikasleak, flamenko emanaldia egin ostean, San Pelayon. A.Z.

Ermuko dantza talde guztiak bat egingo dute gaur iluntzean, plazan

Datorren eguaztenean ospatuko den Dantzaren Nazioarteko Egurenaren harira, erakustaldia egingo dute gaur, barikua, Txindurri eta Fit Gypsy Dance taldeek, Taupada eskolak, Extremadurako Kultur Etxeak eta Pasiuleku Jubilatuen Elkarteak.

Orbe Kardinala plazan izango da, 19:30ean. Eurria bada, Merkatu Plazan izango da.

Irailera aldatu dute ZirKuSS taldearen 'Sustrai' ikuskizuna

Donostiako konpainiak joan den barikuan aurkeztu behar zuen ikuskizuna, baina hasi aurretik gorabehera bat atzeman zen aretoan eta bertan behera geratu zen. Irailaren 18ra aldatu dute, eta saldutako sarrerek data berrirako balioko dute. Itzultzeko aukera ere eskaini dute, 943 70 87 00 telefonora deituta edo Lobianora joanda.

Euskarazko ipuin kontaketa saioen azken hitzordua, bihar

Denboraldiko azken *Arratsaldean kontu kontari* saioa antolatu du liburutegiak. 2017 eta 2022 artean jaiotakoei zuzenduta dago eta Amaia Puin arituko da kontalaria. Zapatu honetan izango da, 17:30ean, eta sarrera doakoa da, baina alde aurretik izena eman beharra dago, 943 17 92 12 telefonora deituta edo biblioteca@udalermua.net helbidera idatzita.



ZUZENBIDE
KONTUAK

Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

Gerra ostean Trabajadorietan

Ermuar ugari gatibu izan zituzten Batallones de Trabajadores delakoetan, bortxazko lanetan

Estibalitz Gonzalez ERMUA

Apirilak 36ko gerraren gomuta ekarri izan die urtero ermuarrei, eta, hura amaituta ere, dikta-duraren sasoi guztian kale izen-degian geratu zen haren lorratza: Calle Martires, Avenida 26 de Abril... Herriak hala nola normaltasunera itzultzeko ahalegi-na egiten ziharduela, bazterretan baziren preso eta etxeraterik ez zuten gizonak.

Babeslekuetara aldetzeko kanpai-hotsak, ondorengo bonben eztanda, ihesa, gosea eta beldurra nagusi egin ziren herritarren artean. Horri gehitu behar zaio etxeakoak non zeuden ez jakiteak sortzen zuen nahieza, bai alde

bateko zein besteko izan. Kartzeletan preso, mendietan ezkutu-an, erailak asko... Izan ziren ere bortxazko lanak egitera behartutako gizasemeak, Francoren erregimenak 1940an sortutako Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores delakoetan indarrez eta esklabotza baldintzetan urteetan preso izandakoak.

Bataloi haietan elkarrekin egondako ermuarrak ere izan ziren, guztiak 1916 jaiotakoak eta 1937an soldadutza egitera deitutakoak. Hain zuzen ere, etxekoen testigantzen bitartez ahotsa emango diegu euron bizipenei.



1941. urte inguruan, bataloi-taldekiez eta lagunez inguratuta, ezkerretik eskumara, tente, Felix Ardanza eta Manuel Arrieta elkarren ondoan; makurtuta, ezkerrengoa Angel Ciarsolo eta eskumarengo Vicente Markina, laurak ermuarrak. ARTXIBOA

Ermuarren bizipenak, etxekoen ahotan



ANGEL CIARSOLO
ANGEL CIARSOLOREN SEMEA

"Kriston lagun pillua galdu zan, millakak, gosiak, hotzak eta kalamidiak tragauta"

"Gure aitxa 20 urterekin gerrara altxau eben, tiro mordo bat jaso, ospitalera, preso gero Larrinagan eta handik Batallon de Trabajadoresera, 4-5 bat ermuarrekin. Zer eitxen eben? Biharra sendo! Harrixak preparatzen zitxuezen, gero kamiñu eta kunetetan kolokatzeko. Harrixakin eitxen zan dana, porlan eta kalipot barik. Dana eskuz eta ein ezian, txibatazoren bat agertzen bazan, garrotia!

Jan? Emoten otsiena. Txarrixi emoten jakuen lehelengo, juan albotik eta haren

sobrak eurak jan! Kriston lagun pillua galdu zan, millakak, gosiak, hotzak eta kalamidiak tragauta. Gaixotu ezker be, herixotzia seguru etorren han.

Gauza bat eken: sasoi ona eta ohituta bihar gogorak eitxera. Harek gizoni badakizu zenbat makillakada emon otsiezen biharra eraitxeko? *Mandos intermedios*, haretzek dira eskasena! Zenbat eruki bako sargento, inporta ez jakuena pertsonia eta animalixak lez tratatzen zitxuezenak!

Soldautzatik bost urtera lizenziau eben, baina Francon erara: militarizauta, *'antes eras rojo, ahora eres nacional'*. Batalloiko kontuak amaitzeran, libertadia emon biharrian, Coruñara *'a purificarse'*. Beste urtebete. Etxeratuta, lehengo lagun zaharrak ez otsien biharrik emoten, baina aurrera egin genduan. Asignatura obligaua zan guretzat orduko gauzak entzutia, jarri tenplau eta entzun egin bihar jakon. Zona limitauak zitxuezen berba eitxeko eta

erderaz bakarrik: etxian bai, tabernan-eta ez".




VICENTE ARRIETA
MANUEL ARRIETAREN SEMEA

"Gordeizak papelok, egunen baten balixoko juek eta"

"Harrapau zitxuezen eta Miranda de Ebroko konzentraziño kanpotik, Trabajadorietan sartu zitxuezen. Uste dot egon zirala Casetasen, Zaragozan. Kanteretan jarri zitxuezen harrixa etaratzen eta kristonak pasau eragin otsiezen: erdi goseik eta makillia. Gorrixak izan eta gorrixak pasau eragin! Sasoi haretan pulmonixia pasau ebala esaten eban amumak. Paraje hotzak izan be eta erropia zenbat eukiko eben ba, hillian duro

bakarra kobrauta? Aitxa ez zan kontularixa, baiña itzelak pasau eragin otsiezela badakit. Eta amak esaten eban modura, 'mutillak, bakeik txarrena hoba dok gerraik onena baino!' eta halantxek izan be! Aitxak gerrako harek papel danak gorde egin zitxuan eta esaten ostan: 'Gordeizak, egunen baten balixoko joeke eta'. Eta etorri da balixo izateko momentua be!".



MIREN AGUS ARDANZA
FELIX ARDANZAREN ALABA

"Beruakin txorixen moduan hiltzen zan jentia"

"Aitxa 20 urtekin juan zan gerrara eta urten eben hamen, Arrate onduan, Kalamuatik Gernikarutz eta harrapau zitxuezen. Eta esan

otsien: *'Vosotros los rojos habéis quemado Gernika'*. Eta eruan zitxuen Panplonara, bertako zezen plazara eta han, abade batek esan otsien frenterako behar zitxuezela balak, ze bestela bertan akabauko zitxuezela. Madrileria bialdu eben gero, Valle de los Caidosera bi hilabete. Amak kontatzen eban esaten ebala han, beruak txorixak hiltzen zitxuan moduan jentia hiltzen zala, beruakin.

Handik Trabajadorietara, bihar forzauak eitxera, kamiñuak eta. Bizimodu gogorra zala esaten eban, biharra besterik ez, eta gosia. Asko argaldu zan. Gipuzkuan be ibilli ziran biharrian, eta azkenian Coruñara bialdu zitxuezen. Berak esaten ebanez zaldi eta manduekin juan ziran bertaraino, pentsaizu zenbat egun! Hamar urte luze gerra, kartzela eta biharrotan egin ostian etorri zan eta gero ezkondu zan, 30 urtekin, sasoirako nagusi. Gerora, berban-berban esaten oskun: 'Isilik egon, e!'. "

Kezka, Zaldibarko zabortegiaren kontrolagatik eta Verter Recycling-en erantzun faltagatik

Udalak informazio zehatza eta koordinazio mahaia sortzeko eskatu dio Jaurlaritzari

Ander Gomez ERMUA

Joan den astean, Josu Bilbao Ingurumen sailburuordearekin batu zen Beatriz Gamiz alkatea, Zaldibarko zabortegiaren egungo egoeraren eta egiten zaion jarraipenaren berri izateko.

Jaurlaritzaren arabera, instalazioak etengabeko zaintza du, urtean bi ikuskapen egiten zaizkio eta azken txostenetan atzemandako gabeziek ez dute premia eskuragarri izaten. Hala ere, zabortegiak Verter Recycling enpresaren ardurapean jarraitzen duenez, administrazioaren jarduteko gaitasuna mugatua dela uste du Udalak: "Jabetza pribatua izanik, larrialdi-egoeretan baino ez litzateke posible zuzenean esku hartzea". Gainera, bilera jasotako artean kezka handiena sortu duen gaia izan da enpresako arduradunek ez dietela administrazioaren errekerimenduei behar bezala erantzun: "Egoera horrek zaildu egiten du ezarritako neurriak bete-araztea eta kontrola bermatzea".

Testuinguru horretan, Gamizek azpimarratu du beharrezkoa dela informazio argia eta egiaztagarria izatea: "Herriarrek



2024an egindako zigitatze-lanak. IREKIA

ziurtasunak behar dituzte, eta administrazioek gardentasunez jokatu eta prebentzioa lehenetsi behar dute". Horregatik, bilera egin eta hurrengo egunean, gutuna bidali zion Ingurumen sailburuordeari, planteatutako gaiak, erantzunak eta datu teknikoak idatziz helaraztea eskatzeko, informazio guztia ofizialki jasota gera dadin.

Lau eskaera eta koordinazio mahaia sortzeko proposamena

Bertan, Udalak lau ardatz nagusitan banatutako informazioa

eskatu du. Lehenik, zaintzaren inguruko xehetasunak: araubidea, azken ikuskapenen datak eta haietatik ateratako txostenak. Bigarrenik, larrialdi-egoerak zehazteko irizpide teknikoak, prebentzio-neurriak, kontingentzia-planak, eta arrisku kasuetan udalerriei eta herriarrei abisatzeko protokoloak. Halaber, azalpen juridikoak eskatu ditu administrazioaren esku-hartzea mugatzen duten oinarriari buruz, Verter Recycling enpresari eskatu zaizkion errekerimenduen zerrenda—eta zeintzuk ez dituen bete—, eta erantzun faltaren aurrean aplikatu daitezkeen neurriak. Azkenik, ingurumen zaintzari lotutako datu eguneratuak eskatu ditu: lixibiatuak, urak, lurzorua, gas-emisioak... eta indarrean dagoen zaintza plana—balego—.

Bestalde, Ermuko Udalak berriro azpimarratu du beharrezkoa erakundeen arteko koordinazio mahaia bat sortzea. "Elkarlana indartu behar da, jarraipen egutegi bat finkatu eta interes orokorra beste guztiaren gainetik dagoela bermatu", adierazi du Gamizek.

Kubara bidaltzeko oinarriko produktuak bilduko dituzte bihar

Ermuan ez ezik, Eibarren, Mutrikun eta Deban ere egingo dute bilketa eskualdean, 10:00etatik 14:00etara

Ainara Argoitia ERMUA

Euskal Herriko Kontseilu Sozialistak (EHKS) eta Ikasle Antolakunde Sozialistak (IAS) Kubara bidaltzeko produktuen bilketa antolatuko dute, Euskadi-Kuba elkartarekin elkarlanean. Hilaren 13tik 24ra, Euskal Herriko ehun hezkuntza-zentrotan baino gehiagotan egin dituzte bilketak IASek, eta bihar, hilak 25, bilketa handia egingo du EHKS Euskal Herri osoko 93 herri eta auzotan; tartean, Ermuan, Eibarren, Deban eta Mutrikun.

Kubak hamarkadak daramatza "AEBen blokeoa sufritzen", eta gaur egungo egoera oso dela larria salatu dute. "Itzalaldiak eta erregai eskasia ohikoak dira, eta bizitzako arlo guztietan ari da kaltea eragiten". Hala, bihar, "kubatarrak gosez hiltzeko blokeo kriminalaren kontrako elkartasun keinutzat" aurkeztu dute. Ermuan, Orbe Kardinala plazan egingo dute bilketa, 10:00etatik 14:00etara. Orduetegi berean jasoko dituzte produktuak Eibarren, Deban eta Mutrikun ere: Eibarren, Toribio Etxeberriari; Deban, Plaza Berriari; eta Mutrikun, Beheko Plazan.



Mila Acea (Euskadi-Kuba) eta Ane Ibarzabal (IAS), ekimena aurkezten. EHKS

Hain zuzen ere, hauexek jaso nahi dituzte: material sanitarioa—2027ko ekainetik aurrera irautgiztekoak diren botikak, osasun-produktuak, eskularruak, preserbatiboak, medikuntzako tresneria eta baliabide kirurgikoak—; elikadura osagarriak; higienarako materiala; eskolako materiala, testuliburuak eta entziklopediak izan ezik; eta garbitzeko materiala. Horrez guztiaz gain, dirua ere jaso nahi dute, plaka fotovoltaikoak erosteko: ES35 3035 0134 43 1340059271.

Hiru Txikiak lasterketaren Gazte Traila probatzeko aukera domekan

A.G. ERMUA

Apirilaren 26an, Gazte Trail Eguna ospatuko dute Hiru Txikiak Traileko kideek. Asteburuan Zazpi Pagokoek Mallabian egin bezala, irailean egingo den lasterketaren ibilbidea ezagutzeko aukera emango diete 15-17 urte arteko korrikalariei.

Merkatu Plazatik aterako dira, 10:00etan, eta Aixolara joango dira oinez. Ura, mendiko zapatilak eta arropa egokia eramatea gomendatu dute. Urtegi, gazte bakoitzaren mailara egokitu-tako ibilbidea prestatuko dute; azpimarratu dutenez, "helburua ez da lehiatzea, baizik eta mendian nola moldatzen diren ikustea, ikastea eta disfrutatzea".

Azken dortsalak

Hiru Txikiak Traileko modalitate guztietako dortsalak agortu egin dira, Gazte Traileko lasterketakoak izan ezik: 100 jarri zituzten eta 32 plaza geratzen dira. Azpimarratzeko da edizio honetan bota zuten 50-50 genero-berdintasun erronka bete eta gaintu duen kategoria bakarra izan dela: apuntatu diren gazteen %60 neskak dira.

Antolakuntzak domeka honetako hitzorduan esperientzia probatzeko gonbita egin die Ermuko, Mallabiko eta inguruko gazteei, eta, gustatuz gero, azken dortsalak eskuratzeko. *Kronoak* plataforman erreserbatu daitezke, 15 euroan.

Barrena Komunikazio Taldeak behar du

KAZETARIA

ESKATZEN DA:

- Kazetaritza, komunikazio edo pareko unibertsitate-titulua edota lan-eskarmetua komunikazio arloan.
- Euskaraz maila altua ahoz eta idatziz.
- Gidabaimena.

BALORATUKO DA:

- Irudiak grabatu eta editatzeko edota argazkiak ateratzeko gaitasuna.
- Ermuarra, mallabitarra edo ingurukoa izatea.
- Herriotako euskalgintza eta dinamika sozialak ezagutzea.

ESKAINTZEN DA:

- Lanaldi osoko jarduna.
- Sei hilabeteko probaldia, kontratu mugagabea bihurtzeko aukerarekin.

Curriculumak

aurkezteko epea:
2026ko maiatzaren 8a

Nora bidali:
barrena@barrena.eus

Barrena
DEBARRRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

7 Pagoko partaideek beroketak egin dituzte, lasterketarako hilabete eskas falta dela

Ibilbide luzea eta laburra probatzeko aukera izan zuten asteburuan



Ibilbide laburra egitera animatu ziren lasterkarietako batzuk. XABAT UZURIAGA

Ander Gomez

Maiatzaren 23an jokatu da 7 Pago mendi lasterketa Mallabian. Dagoeneko 380 lagunek eman dute izena, eta joan den zapatuan bi ibilbideak ezagutzeko aukera izan zuten: luzea, 25 kilometro eta 1.400 metroko desnibel positiboarekin; eta laburra, 16 kilometro eta 750 metroko desnibel positiboarekin. Zazpi Pago Elkarte antolatzaileek ibilbide bakoitzean bi erritmo markatu zituzten, bata lasaia eta bestea biziagoa, nork bere gustura egi-

teko. Dutzatzeko aukera ere eskaini zuten kanpotik etorri ziren lasterkarientzat. Guztira, 40 lagun inguru animatu ziren, eta, behe-lainoak hartutako baso freskoetan barrena, ezin hobeto berotu zuten denek.

Hala, inskribatuta zeudenei ibilbideak ezagutzeko aukera emateaz gain, parte hartzeko ezbaian zeudenei dudak uxaraztea zuten helburu antolatzaileek, eta geratzen diren azken dortsalak agortzea espero dute. Aurten igo dute aurrenekoz dortsal ko-

purua lasterketa laburrean, 150etik 200era, eta martxo hasierarako saldu ziren guztiak. Ibilbide luzeari dagokionez, azken hogeitaz plaza bakoitzeko ez dira falta. *Kronoak* plataforman erreserba daitezke, 25 euroan. Bestela, lasterketa laburreko itzarote-zerrendan apuntatu daitezke.



Dortsala erreserbatzeko, eskaneatu QR kode hau.

Inguruko iturri, ur-jauzi, erreka, baso eta gurutzak ezagutzeko irteera bihar

Artarrai Mendi Taldeak antolatuta du, ibilbidea zirkularra izango da, eta bi irteera izango ditu: bata, Mallabitik; bestea, Ermutik

A.G.

Apirilaren 25erako, zapatua, Mallabian zehar egingo den ibilbide zirkularra antolatuta du Artarraik, 22 kilometroko distantzia eta 1.000 metroko desnibelarekin. Zailtasuna "ertaina" bezala zehaztu dute, ibilbidean zehar gainditu beharreko oztopoak eta tarte aldapatsuak ez ezik, iraupena kontuan hartuta: sei ordu eta erdian egitea aurreikusi dute. Hala ere, hainbat geldialdi egingo dira bidean, ur-botilak bete eta mokadutxo hartzeko.

Bi irteera zehaztu dituzte: mallabitarrak 07:20an aterako dira plazatik, Malleko bidetik Betiondora ailegatuko dira, eta ermuarrek elkartuko dira –haiek bertatik aterako dira, 08:00etan–. Guztiak batera Berano erreka bazterretik igoko dira Arteta iturriraino, eta bidean ur-jauziaren ondotik pasatuko dira. Trabakuara jaitsi eta ura bete ondoren, bigarren zatia hasiko dute: Gereña-Longako bi ur-jauzietara igo eta Zazpi Pago gurutzatuko dute, Zengotitagañerako goieran. Motorzaleen pistatik jaitziko dira Zengotitara; ermitan ura hartu eta zezina-xerra



Ibilbideko ur-jauzietako bat. CARLOS PEREZ

dastaketa egingo dute. Ondoren, Areatsuko gurutzera igoko dira, eta, zerua oskarbi egonez gero, Osmagandik Mallabiko eta Durangaldeako ikuspegi zoragarri zozatu ahal izango dute. Eta, azkenik, jaitsiera aldapatsua egingo dute pagadietan barrena, Artua errekaraino. Haren ibilgua jarraituz jauregira ailegatuko dira, eta ibilbidea hasitako leku berean bukatuko dute mallabitarrak. Ermuarrek San Pedrorra igo beharko dute oraindik, Betiondora bueltatzeko.

Dantza, oilar-harrapatzea eta kontzertua Berano Txiki auzoko San Jurki jaietan

Zapatuan egun osoko jai egitaraua izango da Berano Txikin

Egoitz Unamuno

Aurten ere, Berano Txiki auzoko jai batzordeak jai egitaraua bete prestatu du sanjurkixek ospatzeko. Goizean hasi eta iluntzera bitarte, askotariko ekitaldiak izango dira; besteak beste: meza, dantza-emanaldia, umeentzako jolasak, bertsolariak, bazkaria eta kontzertu akustikoa.

Goizean, dantza eta umeentzako jolasak

Goizeko hamaiketan ekingo diete jaiari, ohiko meza nagusiarekin. Ostean, folkloreaken

txanda izango da eta Gazte Alai dantza taldeak euskal dantza ikuskizuna egingo du. Segidan, umeentzako auzoko jolas klasikoak egingo dituzte: oilar-harrapatzea eta lapiko-apurtzea. Jolas horiek ikusmin handia sortu ohi dute, eta barreak eta tentsio oneak ziurtatuta egongo dira. Ostean, indarrak berritzeko, kafea eta txorixo-pintxoak banatuko dituzte bertaratzen diren auzotar eta bisitari guztientzako.

14:30ean, urtero moduan, auzo-bazkari herrikoia egingo dute

ermita inguruan, eta aurten, bazkalostea girotzeko, Irune Basagoiti ermuarrak eta Ibai Amillategi gernikarrak jardungo dute bertsoetan.

Arratsaldean, lasterketa eta kontzertu akustikoa

Arratsaldean ere izango da zerekin gozatu. 17:30ean, umeentzako lasterketa berezia izango dute, Agarrera Osterie izenekoa. Bertan, gaztetxoek aukera bikaina izango dute euren abiadura eta trebezia erakusteko auzoko bideetan barrena.



Oilar-harrapatzea. VALENTIN MUGARZA

Lasterketaren ostean, 18:30 aldera, jaiari amaiteko, Begibide taldeak kontzertu akustikoa egingo du ermitan, jaieguna modu lasai eta melodikoan ixteko.

Zalantzarik barik, aurten ere ez da faltako lagun arteko giro ederrik Berano Txiki auzoko San Jurki jaietan, auzotarren eta bertaratzen diren bisitari guztien gozamenarako.

Ibaiari buruzko ibilaldi didaktikoa egingo dute bihar, adituek gidatuta

Interesa duen edozeinek parte har dezake ekimenean

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Bihar, zapatua, ibilaldi didaktikoa izango da, Soralezko ibai-paisaiaren Plan Integralaren baitan antolatuta. Antolatzaileek esan dutenez, Oleako zubitik Plaza Zaharrera bitartean 1,8 kilometro inguruko ibilbidea egingo dute, "ibai bat ur-bide bat baino askoz gehiago dela ikusteko. Alde batetik, ingurumenarekin, ondarearekin, hidraulikarekin eta hirigintzarekin lotutako hainbat alderdi ezagutuko dituzte, eta uraren ibilbideari lotutako elementuei eta pertzepzioei buruzko eztabaida eta esplorazio bateratua irekiko da".



Ibaia erdigunean. ARTXIBOA

Olea, SAPA, Kereixeta...

Xehetasunen arabera, "egoera hobetzeko edo arriskuak gutxitzeko ekintza potentzialak aztertuko dira", adituen laguntzarekin. Hain justu, Ibaiaren Plan Estrategikoaren ardura duten eta EHuko irakasle diren Lara del Valle Andrade arkitektoak eta Aida Lopez Urbaneja ingurumenaren adituak gidatuko dute ibilaldia; ezagutza tekniko handia duten adituak, alegia. Haiekin batera, "herriko zenbait agente garrantzitsuk" ere parte

hartuko dute ekimenean. Ana Maiztegi zinegotziak esplikatu duenez, EHuko adituek, Soralezko Udalaren enkarguzko azterlanerako diagnosi fasean jasotako informazioaren arabera, "hiru zona bereizi dituzte, erdigunea, pasealekuak eta miradoreak edo ikusteko lekuak, eta ibilbideak, zelanbait, hiru zona horiek lotzen ditu, nahiz eta ez diren leku guztiak jasoko". Biharko ibilbidean, honako puntu hauetatik pasatuko dira: Oleako zubia -abiapuntua-, Ke-reixeta erreka, Atxuriko pasa-

bidea, Zubi Nagusia, SAPA, Gabolats eta Plaza Zaharra.

Osorik edo zatika

Ekimenaren helburua, berriz, "uraren eta herritarren arteko harremanean sakontzea da, eta ibaiaren egoera hobetzeko zein arriskuak murrizteko ekintza posibleei buruz hausnartzeko aukera ematea".

Azpiparratu dutenez, "ibilaldi erraza da irisgarritasunaren aldetik, baina aberatsa ezagutuko diren lekuei dagokienez". Hori horrela, profil eta adin guztietako pertsoneri zuzenduta dago, eta, berez ordu eta erdiko ibilaldia antolatu duten arren, esan dute ordutegi irekia izango duela; hau da, nahi denean bat egiteko edo ibilaldia uzteko. Hori bai, antolatzaileek amaieraraino iristea gomendatzen dute, bukaeran zerbait jateko aukera egongo baita.

Bestalde, ibilaldi didaktikoa doakoa da eta ez dago izena emateko derrigortasunik, baina izena ematea gomendatzen dute, "antolaketa errazteko".

Antolatzaileek soralezar oro animatzen dute ibilaldi didaktikoan parte hartzera.



Erakusketan erakutsiko dituzten pieza batzuk. LARRAITZ ZEBERIO, GOIENA

Dolmenen Ibilbideko balio handiko aurkikuntzak ikusgai izango dira

U.M.Z. SORALUZE

Apirilaren 28tik aurrera -martitzena-, Soraluzen lehen aldiz ikusgai izango dira Dolmenen Ibilbideko indusketetan egindako aurkikuntzak. Balio handiko piezak dira, Neolitikokoak, Kalkolitokoak eta Brontze Arokoak, 6.000-3.500 urte artean dituzte, eta denetarik dago: zeramikazko ontzi zatiak, harriko aizkorak, giza hezurak, gezi-puntak, zein apaingarri metalikoak. Adituen esanetan, informazio baliotsua ematen dute historiaurreko komunitateen bizimoduari buruz.

Gordailuan egon ohi diren pieza arkeologikoak dira, eta lehen aldiz atera dituzte bertatik.

Ikus-entzunezkoa eta bisita

Maiatzaren 9ra arte izango da erakusketa ikusteko aukera, Araneako aretoan. Elgoibarren eta Bergaran izan da, eta Soraluzen itxiko du ibilbidea.

Piezen erakusketarekin batera, Dolmenen Ibilbidea osatzen duten udalerrri bakoitzean ekitaldi bana egin dute -Soraluze, Elgoibar, Bergara-. Soraluzen Dolmenen Ibilbideari buruz landutako ikus-entzunezkoa proiektatuko dute. Horrez aparte, bi bisita gidatu ere antolatu dituzte; bata martxoan egin zen eta hurrengo maiatzaren 2an izango da. Hiru udalerriek Aranzadi Zientzia Elkartearekin eta Debegesarekin batera antolatu dituzte ekitaldiak.

Ibai bazterretan plastiko gutxiago, herritarren auzolanari esker

Joan den zapatuan, 30 bat herritar batu ziren herriko hainbat eragilek ibaia garbitzeko antolatu zuten auzolanera. Hiru orduan zehar, helduek zein umeek denetarikoz zaborrak topatu zituzten ibaiaren bi ertzetan, eta eguerdirako kamioikada hondakin batu zuten; batez ere, plastikoa. Ekimenean adituek esplikatu zuten, munduan kutsadura da aldaketa globalaren eragile nagusienetakoa eta plastikoa da hondakin kutsatzaileenetako bat.



EGOITZ UNAMUNO

Aurretiazko borondateei buruzko informazio-hitzaldia

Maiatzean, birritan, aurretiazko borondateei buruzko hitzaldia izango da Soraluzen, maiatzaren 4an eta maiatzaren 18an, biak ala biak Kalebarrengo lokalean -Lanbide-, 10:00etatik 14:00etara. Aurretiazko borondateak tramitatzeko bi saioetara joatea komeni da.

Debabarreneko ESIK antolatuta, JendartEKINen baitan egingo dira hitzaldiak; interesa duen edozein bertara daiteke. Hori bai, asko jota, hogeirendako lekua izango da.

Aurretiazko borondateen bidez, norberak adierazita lagatzen du, bere kabuz erabakitze gai ez den unerako, zer-nolako osasun-zainketa jaso edo baztertu nahi duen.

Idaztea eta irakurtzea saritu zuten Sormen Lehiaketan eta Irakurketa Erronkan

Eguaztenean banatu zituzten Sormen Lehiaketako eta Irakurketa Erronkako sariak

Ubane Madera Zangitu SORALUZE Herenegun, eguaztena, sormenak eta irakurzaletasunak hartu zuten Herri Antzokian, bertan entregatu baitzituzten aurtengo Sormen Lehiaketako eta Irakurketa Erronkako sariak.

Sariak eman zituzten udal ordezkariak esan zuten, ehundik gora lan jaso dira Sormen Lehiaketan, eta "argi" geratu da "Soraluzen talentua sobera dagoela".

Halaber, gogorarazi zuten 41. edizioa berrituta egin dela, "sormena bera saritzera igaro" eta "komikia, bertsoa, poesia, ipuina zein ahozko kontakizuna" aurkezteko aukera izan baita.

Sormen Lehiaketa

Sormen Lehiaketari dagokionez, hamabost sari banatu zituzten, hiruna maila bakoitzeko, umeen mailatik hasi eta helduen mailaraino. Eta aipamen berezia

izan zuten, besteak beste, "Mesedetako egoitzatik haien kontakizuna bidali" zutenek.

Irakurketa Erronka

Irakurketa Erronkari dagokionez, berriz, esan zuten, aurten 7-11

urte bitarteko 33 umek "irakurzaletzeko eta literaturzaletzeko grina" erakutsi dute. Halaber, irakurtzeak dituen onurak nabarmendu eta erronka gauzatu zuteni oparitxo bana eman zieten ekimenean parte hartzeagatik.



Irakurketa Erronka gauzatu duten irakurzale-taldeetako bat sariarekin. U.M.Z.

Badator III. SoraFolk, goi-mailako musikarien gidaritzarekin

Maiatzaren 9an izango da eta interesa duen edozeinek parte har dezake; izen-ematea zabalik dago

U.M.Z. SORALUZE

Maiatzaren 9an, SoraFolken hirugarren edizioa egingo dute Soraluzen, folk musika herrikoia hari-instrumentuekin lantzea helburu duen topaketa. Biolin, biola eta biolontxelo jotzaileei zuzendutako topaketa da eta interesa duen edozeinek parte har dezake. Antolatzaileek esan dutenez, ez da beharrezkoa izango partiturak irakurtzen jakitea, imitazioz eta errepikapenez landuko baitaitezke kantuak.

Goi-mailako gidaritza

Goi-mailako irakasleak izango dira gidari: Quicu Puges, besteak beste, Soraluzeko Musika Eskolan biolontxelo irakasle, Kataluniako Goi Mailako Musika Eskolan ikasitakoa eta musikaria ere bada; John Prieto, besteak beste, Soraluzeko Musika Eskolako biolin irakaslea, biolan ere


maisu, Musikenen ikasitakoa eta musikaria ere bada; eta Arkaitz Miner musikari entzutetsua, besteak beste, Alaitz eta Mainer, Tapia eta Leturia, Imuntzo eta Beloki eta Hiru Truku taldeetan gitarrista eta biolin jotzaile ibilitakoa, baita Mikel Markez, Petti, Ruper Ordorika eta Berri Txarrakekin ere.

Arratsaldean, kontzertua

Topaketak bi zati izango ditu: 10:00etatik 14:00etara, musika eskolan; eta arratsaldean, 16:00etan hasi eta 18:30ean bukatuko da, musika emanaldi publiko eginda. Bazkariari dagokionez, elkarrekin bazkaltzeko aukera izango da, Allegro elkartearen. Izen-ematea zabalik dago: 633250548, labur.eus/sora-folk2026 edo soraluzemusika@gmail.com -30 euro bazkari gabe, 40 euro bazkariarekin-.

Herriko sarrera edertzen duen murala, bukatuta

Aste honetako martitzenean bukatu zuen Txurrukeneko murala Udane Juaristik. Auzokoek ibaiarekin zuten bizipenetan oinarrituta dago, auzotarrek lagatako hiruzpalau argazkirekin -bat ikusgai- osatuta.



UBANE MADERA ZANGITU

Zabalik dago udaleku irekietarako eta gazte udalekuetarako izen-ematea

U.M.Z. SORALUZE

Apirilaren 30era arte zabalik da Kukumixoren udaleku irekietan eta gazte udalekuetan izena emateko epea.

HH3 eta LH6 artekoendako udalekuak uztailaren 6tik 17ra izango dira: HH3ko umeek goizeko orduetgia izango dute, 10:00etatik 13:00etara; HH4 eta LH6ra artekoek, berriz, eguenera arte goizez eta barikuetan 10:00etatik 17:00ak artekoa izango dute. Astebeteko -22,5 euro- edo bi aste partaidetza -45 euro- aukera daiteke.

Gazte udalekuak

Bestalde, DBHko gazteendako hiru eguneko udalekuak anto-

latu dituzte; ekainaren 30etik uztailaren 2ra izango dira -30 euro da kuota-. Irteerak egin eta gauak San Andresen pasatuko dituztela iragarri dute.

Udaleku irekietan zein gazte udalekuetan parte hartzeko, izena eman daiteke *Barrena.eus*-en edo Pil-pileanen bulegoan. Hobariak baliatzeko, berriz, udaletxera jo beharko da.

SORALUZE MOTOR
Mendiola Ind. 13 Soraluze
474 556 817 - 943 75 21 38

ODR
ATEAK ETA LEIHOAK
ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA
T. 662 234 609
Sagar Benta Kalea 2 - 30990 SORALUZE
e-mail: odrlehoak@gmail.com

KM design
KIKO MURRUKA
943 76 99 85
Inbuntzarak@yahoo.es
www.kmdesign.es
Prof. Amilago 5 BERGARA
Diseinua eta Fabrikazio lanak
Sukatxoak
Horma-arrainuak
Logesak
Zoruzak
Ahoak...
Arotzeria
lanak oro har
Instalazioak

asigor
Terraza, kontzertuak, dardoak...
Ostiraletan pintxopotea
Gipuzkoa etorbidea 1

aras
zehaztasun handiko piezak
Mendiola Industrialdea 19
Tel. 943 75 17 36 - 943 75 18 03
Fax 943 75 22 95
aras@tomilleriaaras.com
www.tomilleriaaras.com

"Erregulartasunari esker lortu nuen Euskadiko hirugarren postua"

DENIS SORIANO KIROL-ARRANTZALEA

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Soraluzen bizi den Denis Soriano kirol arrantzaleara aramioarrak hirugarren postua eskuratu berri du Euskadiko Salmonidoen Txapelketan, Lance modalitatean. Txapelketa Leitzarar ibaian jokatu zen, apirilaren 11ko asteburuan, eta, arrain gutxi atera bazituen ere, gainerako lehiakideak ere antzera ibili ziren eta Soriano poltsikoratu zuen hirugarren postua, "erregulartasunari" esker. Gainera, bikoteka ere hirugarren geratu zen, David Iglesias lagunarekin batera. Euskadiko podium horretan, txapeldun izan zen Aitor Madrazo eta txapeldunorde David Marcos.

Zelan joan zen lehiaketa?

Gogorra izan da. Eguraldiak markatzen zuen euri asko egin behar zuela, eta, azkenean, horrenbestera ez bazen ere, hotza sartu zen, eta amuarrainei hori ez zaie asko gustatzen. Gainera, ura lehenagotik ere hotza zegoen, eta sartu zenarekin... amuarrainak ez zeuden oso aktibo, eta gogorra izan zen, alde horretatik.

Zein izan zenuen ekitaldirik onena?

Zapatuan atera nuen arrain gehien; ekitaldi bat izan nuen nahiko dezentea zapatu arratsaldean, zortzi amuarrain atera nituen, baina, bestela bi, bi, bat... eta horrela joan zen.

Eta zein izan zen ekitaldirik zailena?

Niretzat bereziki gogorra azken ekitaldia izan zen, domekakoa; arrainek berez ez zioten amuuri heltzen, eta, gainera, amuarra bat galdu egin nuen, pita apurtu zidalako, baina, azkenean, amuarrain bat atera nuen, 26 zentimetro ingurukoa, eta, horri esker, nahiko ondo. Erregulartasunari esker eskuratu nuen hirugarren postua.

Hortaz, hirugarren postu horrekin zure poza handiagoa izango zen, ala?

Bai, ze arrain gutxirekin ez nuen espero ezer irabazterik, baina ikusi nuenean zorte apur batekin lau lehenen artean sartuko nintzela... Orokorrean, oso amuarrain gutxiko txapel-



Ezkerretik hasita, David Marcos, Aitor Madrazo eta Denis Soriano txapeldunak. D. s.

keta izan zen, eta, horrela izaten denean, zorte apur bat duen edozein aurreratu daiteke.

Gainera, bikoteka ere hirugarren egin zenuen; horri esker, datorren urtean berriro, ezta?

Bai, horri esker sailkatu gara datorren urterako. Iaz, David Iglesiasek eta biok irabazi genuen Euskadiko txapelketa, bikoteka, eta horri esker jokatu dugu aurten.

Bai, eta zu txapeldun izan zinen iaz...

Bai.

Hurrengo hitzorduak noiz dituzu?

Maiatzaren bukaeran, 58. Espainiako txapelketarako hitzordua daukat. Indibidualki eta selekziokoa jokatu dut txapelketa hori. Maiatzaren 28tik 31ra izango da, Leonen, Orbigo ibaian. Euskal selekzioarekin, lau arrantzalek puntuatuko dute; halaxe izaten da selekzio bakoitzeko.

"Maiatzean, indibidualki zein selekzioarekin Espainiako txapelketa jokatu dut"

Eta gero, ekainean, seguru aski, beste open batean parte hartuko dut: Open de Mieres, Asturiasen.

Zein aurreikuspen Espainiako txapelketarako?

Apur bat ezagutzen dugu Leongo Orbigo erreka, eta, gogoz nago. Gainera, iaz hirugarren sailkatu ginen selekziokoa; orain lau urte, berriz, bigarren geratu ginen, eta ea, bada, aurten lehenengo geratzea tokatzen den.

Eta irailan berriro Espainiakora, ezta?

Bai. Bikotekako VII. Espainiako Txapelketa jokatu dugu irailaren 24tik 27ra. Araxes eta Leitzarar ibaietan izango da txapelketa hori. Iaz, hirugarren geratu ginen Espainia mailan David Iglesias eta biok. Txapelketa horretan biren artean egin behar da arrantza, ibaiaren zati bat hartuta.

Iaz, urte borobila izan zenuen; zelan doa aurtengoa?

Denboraldia ondo hasi da. Orain, maiatzeko Espainiako txapelketa prestatzen ari naiz, eta horretarako behar ditudan euli artifizialak prestatzen. Ea lan polita egin dezakedan.



Jokin Marino, Ixa Rodriguez, Aaron Santana eta Wasim Berfai, martitzenean. U.M.Z.

Boxeoko Euskadiko finalerdiak Araneko kiroldegian jokatuko dituzte

Sarrerak dagoeneko salgai daude, 15 euroan alde aurretik eta 20 euroan egunean bertan txarteldegian erosita

U.M.Z. SORALUZE

Maiatzaren 9an, goi-mailako boxeoko jaialdia izango da Soraluzen. Euskadiko finalerdiak jokatuko dituzte, hamaika borrokaldi; eta, haiek osatzeko, beste bost borrokaldi izango dira, Soraboxeko boxeolarienak. Hain justu, Soraboxen eskutik dator hitzordua. 18:00etan hasiko da jaialdia, Araneko kiroldegian, eta sarrerak salgai daude. Eros daitezke alde aurretik 15 euroan Soraluzeko

kiroldegian, Beleko tabernan, 639 27 56 75 zenbakian, edo egunean bertan txarteldegian, 20 euroan. 17:30ean zabalduko dituzte ateak.

Ixa Rodriguez Soraboxeko arduradunak esan duenez, iaz, Elgoibarren, Olinpiar modalitateko Euskadiko Boxeo Txapelketako finalak izan ziren, eta aurten, Euskadiko finalerdiak Soraluzen: "Inportantea da halako ikuskizun garrantzitsuak gure herrietara ekartzea".

Boxeo jaialdiko borrokaldiak

Euskadiko hamaika finalerdi jokatu dira Araneko kiroldegian; eta haiek osatzeko, Soraboxeko bost boxeolarien borrokaldi:

Euskadiko finalerdiak

- Xena Barbudo (Araba) vs Esmeralda Ferreiro (Gipuzkoa)
- Paula Olalquiaga (Gipuzkoa) vs Dorleta Zubeldia (Araba)
- Oier Biain (Araba) vs Axel Aguilar (Gipuzkoa)
- Ghoufran Laabi (Araba) vs Mariur V. Zubcu (Gipuzkoa)
- Diego Duran (Gipuzkoa) vs Bladi Etxaniz (Bizkaia)
- Jesus Magnavy (Gipuzkoa) vs Ekaitz Delgado (Araba)
- Iker Santos (Araba) vs Abdelilah Daoui
- Gilen Ibarzabal (Bizkaia) vs Gabriel Alejandro
- Elkin Molero (Araba) vs Robell Batista
- Eneko Gaztañaga (Gipuzkoa) vs Ager Beoña (Bizkaia)
- Aritz Rekarte (Gipuzkoa) vs Unai Barrena (Bizkaia)

Soraboxekoak

Soraboxetik antolatuta, berriz, beste bost borrokaldi izango dira.

- Bilal (Laudio) vs David (Zaragoza)
- Jokin (Eibar) vs Anderson (Bilbo)
- Aaron (Soraluze) vs Michael (Bilbo)
- Wasim (Soraluze) vs Egoitz (Anoeta)
- Asier (Soraluze) vs Aceituno (Anoeta)

Euskararen aldeko lehenengo Zuhatza Trail mendi lasterketa eta martxa, ekainaren 27an

Zuhatzak zabaldu du jadanik izen-ematea, Debako eta Itziarko herritarrentzat

Izaro Aulestiarte DEBA

Ekainaren 27an, euskararen aldeko lehenbiziko Zuhatza Trail mendi martxa eta lasterketa egingo dituzte Deban. Atzo ireki zuten izen-ematea, aurrez aurrekoa, eta gaur -18:00etatik 20:00etara- eta bihar ere -12:00etatik 14:00etara- izango da horretarako aukera, Foruen plazan.

Antolakuntza taldeko Unai Itxasok azaldu duenez, herrikoei eman nahi diete lehentasuna, "Zuhatza Trail ekimen herrikoia izan dadin", eta horregatik heldu diote lehenbizi aurrez aurreko izen-emateari. "Herriko jendea euskaraz kontzientziatzea da gure helburua, herria eskaldundu nahi dugu, eta horregatik zabaldu ditugu izen-emateak herrian bertan lehenengo. Asmoa da herrikoek parte hartzea, bai lasterketan, bai mendi martxan, kontuan hartuta gainera egun osoko festa izango dela. Beraz, bertokoen presentzia ezinbestekoa izango da", adierazi du.

Gehienez 150 lagunek parte hartu ahal izango dute mendi martxan eta beste hainbestek lasterketan; aurrez aurreko izen-ematean partaide kopuru horretara iristen ez badira, da-



Unai Itxaso, Leire Olazabal eta Sara Arrizabalaga, ekimenaren kartelarekin. ZUHATZA TRAIL

tozen asteotan Internet bidez eman ahalko da izena. 20 euroko prezioa du lasterketarako inskripzioak -17 eurokoa Zuhatzako bazkideentzat-, 10 eurokoa mendi martxarakoak -7 euro bazkideentzat- eta umeek 5 euro ordaindu beharko dituzte; adin txikikoek ezingo dute, baina, lasterketan parte hartu.

Ibilbide bera

Foruen plazatik abiatuko da: 08:00etan hasiko da mendi martxa, eta 10:00etan lasterketa. Eta ibilbide bera osatu beharko dute

bi probetako parte hartzaileek. Hamalau kilometro egingo dituzte guztira, 550 metroko desnibel positiboarekin: Deba-Artzabal-kanaleko bidea-Arbil-Itziarko poligonoa-Santa Katalina-hondartza-Ifar kalea-Plaza Zaharra-Foruen plaza.

Denborak markatuko du, hortaz, martxaren eta lasterketaren arteko aldea. "Mendi martxa ibilbidea lasai egiteko asmoarekin antolatu dugu, umeen parte-hartzea ere bultzatu nahi dugulako. Lasterketan, berriz, mendiaz korrika ere disfruta-

tzeko aukera eman nahi dugu. Animatu bietako batera!", aipatu du Unai Itxasok.

Helburuak, argi

Kirolaz harago doa Zuhatza Trail, antolatzaileen esanetan. Gogorazi dutenez, hain justu, Debako Euskaltzaleen Mugimendua eraberritze prozesuan murgilduta dabil azken hilabeteotan. Abiapuntu bezala, lehentasunezko bi lan-ildo zehaztu dituzte: Kolore Anitz eta Adaxka. Baina, horiez gain, bestelako ekimen batzuk ere jarri dituzte martxan, eta horien artean dago ekainerako iragarri duten hitzordu berritzailea.

"Euskararen erabilera esperientzia kolektibo positibo bihurtzea da helburu nagusia. Ez dugu Zuhatza Trail ohiko lasterketa tradizional bat izaterik nahi. Egun osoko festa giroa sortzea da gure asmoa, euskarari mezezi duen tokia emanez, eta, betiere, kiroltasuna, elkartasuna, errespetua eta inklusioa indartuz", azpimarratu dute.

Ekimen berria izanik, sustatzaileek aitortu dute ez dela erronka txikia izango ekimena prestatzea, nahiz eta jendea gogotsu dabilen: "Ilusioz beteta gaude, pixkanaka badoalako guztia forma hartzen". Nolanahi ere, askotariko boluntarioak, laguntzaileak eta babesleak behar dituztela gogorarazi dute. Laguntzeko prest daudenek zuhatzakirolo@gmail.com posta elektronikora idatz dezakete.

Xake azkarreko lehia eta arbitro ikastaroa, asteburu berean

I.A.

Xakearen bueltako bi jarduera izango dira Deban asteburu honetan: xake azkarreko txapelketa, batetik; eta hiru eguneko arbitro ikastaroa, bestetik.

Gipuzkoako Xake Federazioak antolatutako txapelketa igandean jokatu da, Agirre jauregian. 10:00etan hasiko da, eta arratsaldetako saioaren hasiera arbitroak iragarriko du. Hamabost minutuko partidak jokatu dituzte, egindako jokaldi bakoitzari bost segundo gehituta. Sei txanda izango dira guztira eta lehen hiru sailkatuek jasoko dituzte sariak; sari banaketa 13:30ean egitea aurreikusten dute. Gehienez, 30 jokalarik parte hartu ahal izango dute, eta bertan aritzeko ezinbestekoa da Gipuzkoako Xake Federazioaren lizentzia indarrean izatea.

Arbitro ikastaroa, bestalde, gaurtik -apirilak 24- igandera bitartean egingo dute, Turismo Bulegoaren alboan -Ifar kalea 4-, Euskal Xake Federakuntzaren ekimenez. Azaldu dutenez, ikastaroa xake partiden eta txapelketen antolakuntzan nahiz araudian interesa dutenei zuzenduta dago. Astelehenean itxi zuten izen-ematea.

Giro aparta, beste behin, haur krosetan



JOXERRA LARRAÑAGA

Eguraldia lagun, irudi ederrak laga zituen hilaren 18an jokaturako 56. Anes Arrinda haur krosak. HH5 eta LH6 arteko 147 ikaslek parte hartu zuten ekimenean eta ikusle ugari batu ziren adinaren arabera banaturako luzera askotariko korrikaldiak ikustera. Giro ona izan zuten "kirola sustatzeko, ohitura osasuntsuak bultzatzeko eta elkarrekin une atsegina pasatzeko helburuarekin" antolatutako ekimenean.

200 hurrek hartuko dute parte Kolorez Blai euskal udaleku irekietan

I.A.

Guztira, 200 hurrek parte hartuko dute Debako Udalak eta Zuhatza-Kolore Anitzek elkarlanean antolatutako Kolorez Blai udaleku irekietan, ekainaren 29tik uztailaren 24ra bitartean.

Aurten, txandak beste era batera antolatu dituzte: HH4-HH5 eta LH1-LH4 mailetakoko hurrek lehen hamabostaldian -ekainaren 29tik uztailaren 10era-, bigarren hamabostaldian -uztailaren 13tik uztailaren 24ra- nahiz hilabete osoan -ekainaren 29tik uztailaren 24ra- izena emateko aukera izan dute. LH5-LH6 mailetakoe, aldiz, hamabostaldi bakarria izango dute -uztailaren 13tik uztailaren 24ra-. Astelehe-

netik ostiralera egingo dira udalekuak, 10:00etatik 13:30era.

Antolatzaileak gustura daude aurtengo eskaintzak izan duen harrera onarekin; horren erakusgarri da matrikulazio kopuruak gora egin duela. Izen-ematea garaiz egin duten haur guztiak izan dira onartuak.

Bilera, aurrerago

Udalekuan parte hartuko duten haurren gurasoei eta tutoreei zuzendutako bilera egingo dute aurten ere, baina data aurrerago zehaztuko dute. Informazio gehiagorako, 641 46 52 42 telefono zenbakira deitu edo koloreanitz@gmail.com posta elektronikora idatz daiteke.

Izan Tribuk 80tik gora lagun batuko ditu lehenbiziko ekimenean

I.A.

Igandean, hilaren 26an, 80tik gora lagunek Santa Katalinara irteera egingo dute familian, baita yoga saioa ere. Ekimena Zuhatzak sortutako Izan Tribu egitasmoaren baitan antolatu dute, HH4ko eta HH5eko ikasleei eta beren familiei zuzenduta -gurasoak eta neba-arrebak-, eta "gorputza martxan jarri eta euskaraz elkarrekin gozatzea" du helburu.

10:00etarako jarri dute ordua, Foruen plazan, bertan hasiko baita txangoa. Antolatzaileek ohartarazi dutenez, baina, euria eginez gero, yoga saioa Ifar kaleko Luzaro ikastetxean egingo dute, ordubete geroago.

TEK Deba-Itziar energia-komunitateak izena emateko epea zabaldu du

200dik gora etxebizitza eta saltoki txikiri zabaldu diete parte hartzeko aukera

Nerea Bedialauneta Alkorta

Debako Udalaren bultzadari eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzari esker, martxan da TEK Deba-Itziar energia-komunitatea. Udalak joan den ostiralean, apirilaren 17an, aurkeztu zuen egitasmoa, prentsaurreko batean; bertan izan ziren Alazne Txurruka alkatea eta Jon Riaño alkateordea, izen-ematea zabalik dagoela jakinarazi eta proiektuaren xehetasunak azalzeko.

Tokiko erakundeko iturriek adierazi dutenez, Debako eta Itziar etxebizitza eta saltoki txikiek proiektuan parte hartzeko aukera izango dute. Parte hartzaileek zero kilometroko energia berriztagarria eskuratu ahal izango dute, instalaziorik edo obrarik egin beharrik gabe.

Iragarri dutenez, energia udalerrian bertan ekoiztiko da, Luzaro ikastetxeko teilatuan kokatutako instalazio fotovoltaiko baten bidez. Aldundiak jarritako azpiegiturak 857 metro koadroko azalera hartuko du eta 286 panel fotovoltaiko izango ditu; aurreikuspenen arabera, guztira 128 kWp-ko potentzia



Jon Riaño eta Alazne Txurruka, egitasmoaren aurkezpenean. DEBAKO UDALA

sortuko du, erabiltzaileak "energia garbi eta gertukoarekin" hornitzeko.

Bitik bostera

Bestalde, ohartarazi dute araudia eguneratu egin dutela, eta, horri esker, autokontsumo kolektiboan parte hartzeko erradioa bitik bost kilometrora zabaldu da. "Aldaketa horrek ahalbidetzen du Deba eta Itziar inguruko auzokide eta merkataritza gehiagok parte hartu ahal izatea eta sortutako energiaren onurak jasotzea", azaldu dute sustatzaileek.

Gauzak horrela, proiektu berriari 200 etxebizitza eta saltoki txiki baino gehiago hartzea aurreikusten dela zehaztu dute. Nabarmendu dutenez, parte-hartzaileek %25era arteko aurrezkitia lortu ahal izango dute euren argindar-fakturari. Udalak, gainera, sortutako energiaren zati bat egoera ahulenean dauden familiei bideratzeko asmoa du, "proiektuaren izaera soziala eta inklusiboa indartzeko".

Alazne Txurruka alkatea azpimarratu duenez, "proiektua eredu energetiko bidezkoago,

jasangarriago eta tokikoago baten aldeko apustu irmoa" da. "Gobernu taldeak lanean dihardu Debako auzokideei eta merkataritza txikiei energia garbi eta berriztagarria eskuratzeko aukera emateko, inolako kostu ekonomikorik edo inbertsio gehigarrik gabe. Horrez gain, familiek eredu horretan parte-hartzeari esker, elkartasunaren eta justizia sozialaren aldeko konpromisoa berresten dugu, herri bidezkoago eta erresilienteago baten oinarri diren bi zutabe".

Maiatzaren 31ra arte

Izen-ematea dagoeneko zabalik dago. Interesa dutenek maiatzaren 31ra arte eman ahalko dute izena, <https://labur.eus/ltwupt06> helbidean sartuta. Parte hartzeko lekua mugatua denez, eskaerak izen-emate ordenaren arabera kontuan izango dituztela jakinarazi dute.

Egitasmoari buruzko informazioa emateko eta zalantzak argitzeko helburuarekin, hala, hainbat saio antolatu dituzte. Lehenengoa asteazkenean egin zuten, hilak 22, Kultur Elkartearen; hurrengoa, berriz, apirilaren 28an izango da, 18:30ean, Itziar Burugorri aretoan. Informazio gehiagorako, www.comunidadenergeticalocal.eu/eu/proiektuak/deba-itziar/ webgunea kontsultatu edo 900 859 695 telefono zenbakira deitu daiteke –aste-gunetan, 10:00etatik 18:00etara–.

Gaztelekuaren zerbitzua lizitaziora ateratu du Udalak

N.B.A.

Debako Udalak gaztelekuaren zerbitzua kontratatzeko prozedura abiatu du. Urteko aurrekontua 147.935,07 eurokoa izango da –BEZa barne–, eta kontratua bi urterako izango da hasieran, beste horrenbeste luzatzeko aukerarekin. Eskaintzak maiatzaren 12ra arte aurkeztu ahal izango dira, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren bidez.

Parte hartu nahi duten enpresek, besteak beste, antzeko zerbitzuen kudeaketan esperientzia izan beharko dute, "bereziki gazteriaren eta aisialdi hezigarriaren esparruan", eta nerabeen arretan esperientzia duten langile kualifikatuak eduki. Zerbitzua euskaraz ematea eta genero berdintasunaren arloko araudia betetzea ere derrigorrezkoa izango da.

Zerbitzuak, gainera, 12 eta 17 urte bitarteko gazteen garapen pertsonala, soziala eta kolektiboa sustatuko dituen jolas eta hezkuntza-jarduerak eskaini beharko ditu. Jarduerak gaztelekuaren egingo dira nagusiki, baina kanpoko ekintzak ere antolatuko dira, betiere, Udalak gainbegiratu.

Erabilgarri dago liburutegian haurrentzat egokitu duten gunea

Haurrentzako Txokoa deritzon espazioa KZgunea zegoen lokalean kokatu dute; liburutegiaren ordutegi bera izango du

N.B.A.

Debako Udalak haurrentzako gune bat sortu du Ostolaza udal liburutegian. Haurrentzako Txokoa deritzon espazioa atzo, apirilak 23, zabaldu zuten, ate irekien jardunaldi batekin eta, azaldu dutenez, "haurrek euren beharretara egokitutako inguru batean gozatzeko eta, irakurtzeaz gain, jarduerak egiteko eta kalitatezko denbora partekatzeko" aukera emango du.

Liburutegiaren ondoko lokalean egokitu dute gune berria –lehen KZGunea zegoen tokian–,

eta liburutegiaren ordutegi berbera izango du: 09:30etik 13:00etara eta 16:30etik 19:45era, hain zuzen ere.

Familien eskariari erantzunez

Alazne Txurruka alkatearen arabera, ekimenak "zuzenean erantzuten dio Debako familiek aspaldian egindako eskaerari, seme-alabentzat egokia izango den leku bat izateari". Haren esanetan, "hurbilekoa eta irisgarria" den toki bat jarri nahi izan dute familien esku, "haurrek ongizatea eta sormena



Ostolaza udal liburutegiko Haurrentzako Txokoa. DEBAKO UDALA

sustatuko dituen espazio batean gozatu ahal izan dezaten".

Haurrentzako bereziki pentsatutako eremuak, gainera, kudeaketa propioan oinarritutako eredu funtzionatuko du; horri esker, familiek euren denbora

modu malguan antolatu ahal izango dute; betiere, heldu baten zaintzapean. Halaber, familiek jarduerak eta jolasak antolatze-ko aukera ere izango dute, Udalaren baimenarekin eta helduen ardurapean.

Apirilaren 30era arte eskatu ahal izango dira TAO txartelak

Maiatzaren 1ean abiatuko da TAO zerbitzua Deban, eta Udalak jakinarazi du txartelak eskatzeko epea zabalik dagoela apirilaren 30era arte.

Egoiliarrentzako txartela helbideratuta dutenek etxean jasoko dute, eta gainerakoek modalitatearen arabera izapidetu beharko dute. Udatiarrentzako txartela Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan eskuratu beharko da, eta besteak Udaltzaingoa bulegoetan kudeatuko dira. Egoiliarrentzako txartel bereziak, udatiarrentzako txartelak eta ez-egoiliarrentzako lan-txartelak 60 euroko tarifa izango dute, eta egoiliarrentzako lan-txartelak, berriz, 30 eurokoa.

'Argitzala' diskoa aurkeztuko du Jurgi Ekiza musikariak gaur, Kultur Elkartearen

Kontzertua 20:00etan hasiko da, eta sarrerak 6 euroan jarri dituzte salgai

Izaro Aulestiarte DEBA

Jurgi Ekizak (Baiona, 1980) kontzertua emango du gaur, ostiralez, Debako Kultur Elkartearen, 20:00etan hasita. KulturEkin programaren baitan egingo du emanaldia, eta sarrerak 6 euroan eskuratu daitezke, bai aurrez, Internet bidez labur.eus/ekiza-kulturekin estekan, bai zuzenean, aretoan bertan.

Willis Drummond taldeko abeslariak eta gitarristak rock taldearen "etenaldi mugagabea" baliatu du *Argitzala* lana prestatzeko. Abuztuan ikusi zuen argia estudioko haren barkarkako hirugarren diskoak, eta, harrezkero, musikariak aurkezpen-bira egiten dihardu Euskal Herrian barna. Berriki Zestean eta Artean egon ostean, Debakoa izango du apirilako azken zuzeneko; beste zazpi kontzertu iragarri ditu, nolahi ere, ekainaren 21era bitartean. Bakarrik ariko da agertokian.

Emozioak ardatz

Hamaika abestiz osatutako diskoa da *Argitzala*, Ekizak bere kabuz ekoitzia: musika tresnak jo ditu, ahotsak grabatu, nahasketak egin eta masterizazioa lan-



Jurgi Ekiza musikaria. UTZITAKOIA

du. Kanten hitzetan natura oso presente dago eta emozioak dira ardatz nagusia. Lanaren izenburuak berak laburbiltzen du diskoaren mamia; musikari lapurtarrak argiaren eta itzalaren arteko oreka bilatzen du, biak uztartzen ditu, ez baititu elkarren aurkako elementutzat jotzen. "Esaten dugu argia dela baikorra eta itzala ezkorra, baina ez da beti horrela. Non hasten da bata eta non bestea? Ideia ona iruditu zitzaidan *argia* eta *itzala* hitzak hartzea, normalean

mutur banatan daudenak, eta biak hitz bakar batean elkartzea", laburbildu du Ekizak.

Maiatzean, antzerkia

Gaurko kontzertua ez ezik, maiatzean KulturEkin programaren baitan egingo den hurrengo ekitaldia ere iragarri dute egunotan: Ugaitz Alegriak eta Ainhua Etxebarriak *Tongola* umorezko ikuskizuna taularatuko dute hilaren 22an, 20:00etan. Sarrerak 5 euroan daude salgai, labur.eus/tongolakulturekin estekan.

Salgai daude Itziarko Erromeria Eguneko bazkarirako sarrerak

I.A. ITZIAR

Maiatzaren 2an, larunbatez, ospatuko den XVI. Erromeria Eguneko bazkarirako txartelak salgai daudela iragarri dute Andutz Euskal Dantza Taldeak eta Itziarko Auzo Udalak. Zabaloso frontoian egingo dute herri bazkaria, 14:30ean, eta txartelak apirilaren 28ra arte egongo dira eskuragarri, Buru-gorri Ostatuan, Itziarko Hostalean edota Internet bidez, labur.eus/bazkaria estekan.

Helduen menu orokorra honako hau izango da: entsalada mistoa, baserriko oilaskoa parrillan, txerri-saiheskiak parrillan, Eceizako pasteltxoak, ogia, kafea eta edariak. Menu beganoa,

berriz, entsalada mistoak, menestrak, lasagnak eta postreak osatzen dute. Biak ala biak 23 euroan eskainiko dituzte. 14 urtez azpikoentzat, bestalde, umeen menua prestatuko dute, 13 euroan: iberikoak, urdaiaz-piko-kroketak, baserriko oilaskoa parrillan patatekin, izozkia, ogia eta edariak.

Egun osoko festa

Bazkariak harago, egun osoko egitaraua dakar, beste urte batez, Erromeria Eguna. Kalejirek, dantzek, Trikitixa Eskolako ikasleen emanaldiak eta erromeriek berotuko dute jai giroa. Txankartaren argazki erakusketa ere izango da, Tranpapean.

Bihar amaituko dira Liburuaren Egunean bueltako ekitaldiak

Bihar, hilak 25, egingo dute Liburuaren Nazioarteko Egunean bueltan Deban antolatutako azken ekimena. Ipuinak eta poesia ardatz hartuta, hitzordu berezia hartuko du Kultur Elkarteak, 11:00etan. Debako Kontalarien ipuin kontaketa, Rafael Bravoren liburuen aurkezpenak eta poesia erreztaldia osatuko dute ekitaldia.

'Dena zulo bera zen' liburuaz ariko dira Irakurketa Klubean

Ostolaza Udal Liburutegiko Irakurketa Klubean partaideak apirilaren 29an elkartzeko dira, 19:00etan, eta Eider Rodriguezen *Dena zulo bera zen* liburua izango dute hizpide. Asier Serrano idazle eibartarrak gidatuko du saioa, euskaraz.

Parte hartu nahi dutenek aurrez eman beharko dute izena, udal liburutegian (943 19 25 60).

DEBA-ITZIAR

Barrena astekaria etxean jasotzeko ezinbestekoa da eskaera-orria betetzea eta pegatina postontzian jarrita izatea



Eman izena!
barrena.eus/harpidetzak

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

LAN-ESKAINTZAK

Elgoibar. Mintxetako eta Olaizaga kiroldegiko harreran lan egiteko langilea behar da, maiatzaren 2tik urriaren 2ra. 17,72 ordu astean. Maiztzean eta urrian, asteburuak; ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean, astegunen eta asteburuen arteko nahasketa. 663 45 65 27 / aazpiazu@emtesport.com

ESKAERAK

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. Asteburuetan ere lan egiteko prest nago. Ospitalean zaintza lanak ere egiten ditut. 631 42 56 86

Elgoibar. Etxebizitza, atari, elkarte eta tabernetan garbiketa lanak egingo nituzke. Esperientzia. 688 75 86 30

Elgoibar. Asteburuetan adinekoak zaintzeko prest nengoke; esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. Etxeko langile moduan ere bai. 642 57 89 43

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Asteburuetan ere bai. 632 04 01 71

Elgoibar. Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Berehala hasteko moduan nago. Titulu soziosanitarioa daukat, eta paperak, legeak. 641 32 24 73


Elgoibar. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Margotze, iturgintza... lanak egiteko ere prest nago. 603 72 70 67

GARAJEAK

Elgoibar. Garaje murraduna salgai, San Roke 5 auzoan, Telefonica eraikin alboan. 2,7x3,9 metroan banatutako 10,53 metro koadroko tartea. kotxea garbitzeko gunea dauka. Prezioa: 11.900 euro. 679 33 24 07

Elgoibar. Garajea hartuko nuke alokairuan Santa Ana kalean. 679 81 62 58

ZORION AGURRAK



SORALUZE
Aitor
Zorionak, Aitor!



ELGOIBAR
Luna
Zorionak, Luna, zure lehenengo urtebetetzean. Aurten bat, eta urterik urte, gehiago. Familiarekin pozez betetzen jarrai ezazu.




ELGOIBAR
Aia
Zorionak, Aia! Bihar, 5 urte handi! Asko maite zaitugu, iargiraino eta buelta bide zaharretik beti. Muxu handi bat, Liharren partetik.



ELGOIBAR
Lucia
Zorionak, Lucia! Atzo 11 urte, eta oso ondo ospatuak! Muxu handi bat, etxeko guztien partez!



ELGOIBAR
Karmen
Zorionak, amama! 85 urte! Gustura ospatu genuen zure eguna. Ez ahaztu eguneroko paseoak eta Aittola Zaharreko planak, eta laster bilduko gara berriz ere. Maite zaitugu!



ELGOIBAR
Manex
Zorionak, Manex, 5 urte handi egin dituzulako! Muxu handi bat, etxeko eta, bereziki, Nikoleren partez.



SORALUZE
Telmo eta Maddi Ane
Segi elkarren babesian bizitza ospatzen! Muxu bat etxekuen partez

Iragarkia jartzeko

943 744 112

sailkatuak@barrena.eus

www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkeneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- BARRENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu.

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- "Barrena.eus"-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurra helbidean sartu.
- Mezua bidali herrietako erredakzioetara edota Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz zorionagurra@barrena.eus. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta testua.
- Etorri edo deitu gure betiko egoitzetako batera.

Barrena

BATZEN GAITUENA

Jarraitu Debabarreneko aktualitatea



MENDARO

I. urteurrena

Jose Mari Berasaluze Iriondo

2025eko apirilaren 23an hil zen, 88 urte zituela.

Haren oroimenez lehen urteurreneko meza izango da domekan, apirilaren 26an, 12:30ean, Mendaroko Garagartzako Ama Birjina Sortzez Garbiaren elizan. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



ELGOIBAR

Maria Dolores Eizaguirre Odriozola

2026ko apirilaren 17an hil zen, 81 urte zituela.



*Zurekin bizitakoak
beti gure oroimenean.*

Etxekoak

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunera agertu izana ere.

DEBA

Hogeigarren urteurrena

Jokin Gorostidi Artola

1944-2006



*Maitasun indarrak lotzen ditu
lurra eta euskara;
askatasun borrokak
zazpiak baten Euskal Herria.*

Gu hortxe, Jokin, biok bat!

Itziar

Barrena eskelak: zabalkunde handiena Debarrean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - barrena@barrena.eus

- Bulegoak:
- DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
- ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
- ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
- SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eus

OSTIRALA 24

- **ELGOIBAR Nekazaritzako ibilgailuen azterketa tekniko** Mintxetako aparkalekuan, 09:00etan.
- **SORALUZE Literatur aretoa: 'Hizki hazka'** Sorluzeko udal liburutegian Liburuaren Egunaren baitan antolatutako ekintza, Galtzagorriren eskutik. Erakusketa aretoan, 09:00etan.
- **DEBA Hitzaldia: 'Eta hitz egiten dugun bitartean kafe bat hartzen badugu?'** Debako Gurutze Gorriaren jarduna ezagutarazteko helburuarekin antolatutako ekimena –65 urtetik gorakoentzat–. Gurutze Gorriaren lokalean, 17:00etan.
- **ELGOIBAR Porrotx eta Marimotots Zerua lapurtu dute** izeneko ikuskizuna taularatuko dute. Herriko Antzokian, 17:00etan lehenengo saioa eta 19:00etan bigarrena.
- **ELGOIBAR Hitzaldia: 'Tresnak eta estrategiak etxean mugikorra nola erabili lantzeko'** Elgoibarko Amataumobila taldeak antolatuta, Telmo Lazkanok hitzaldia egingo du sakelako telefonoak etxean modu egokian erabiltzen ikasteko. LH4 eta DBH1

- **DEBA Adaxka Debako gazte euskaltzaleen bilera irekia** Kultur Elkarteak liburutegian, 18:00etan.
- **MALLABIA Suizidioaren prebentziorako eta osasun emozionala sustatzeko jardunaldia** Mallabiko Udalak antolatutako saio horretan, haurtzaroen eta nerabezaroen gertatzen den ondoez emozionala ulertzeko gakoak landuko dituzte, alerta-seinaleak identifikatzeko baliabideak eman eta familia-komunikazioa indartzeko estrategiak jorratu. Kontzejuzarran, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Zazpigarren Arteari buruzko kafe-tertulia** Haizeak antolatuta eta Loredi Salegik gidatuta. Elgoibarko Lila Emakumeen Etxean, 18:30ean.
- **ITZIAR Ipuin kontaketa saioa: 'Inoiz ez desagertzeko ipuina'** Burugorri gainean, 18:30ean.
- **MENDARO Pintxo dastaketa herriko lau tabernatan:** Aitzbeltz, Ormola, Txirristaka, eta Uztargi. 19:00-21:00. Eta Joselontxos txarangaren kalejira, 19:00etan, Ormolatik hasita.



ERMUA Apirileko Feria eguna

LARUNBATA 25: 11:00etatik 13:00etara Ekilore –haurren tailerra–. 12:00etan azokaren irekiera eta pregoia. 12:30etik 14:00etara feria-pasaportearen banaketa. 13:00etan flamenko poteo-gurdia San Pelaioke taberna laguntzaileetan zehar. 13:30etik 15:30era Andaluziako jaki tipikoak: tapak –ganba-tortillak, marrazoa, kalamarrak–, Jesus Sagarraren ardurapean. 16:00etan sevillanen eskola magistrala (Eva). 17:00etan sevillanen lehiaketa eta Flamenkorena desfilea. 18:00etan flamenko poteo-gurdia. 19:00etan Azahar talde flamenkoa. San Pelaio parkean, 11:00etatik aurrera.

- **SORALUZE Erakusketa: 'Vitalia Samuilova: ¿Quién lleva a quién?'** Oreka Art galerian, 19:00etan.
- **ERMUA Dantzaren nazioarteko egunaren jaialdia** Orbe Kardinala plazan, 19:30ean.
- **DEBA Euskal presoen eta iheslarien giza eskubideen aldeko mobilizazioa** Foruen Plazan, 19:30ean.
- **SORALUZE 'Azken ostirala' elkarretaratzea.** Sarek deituta, Plaza Barrixan, 19:30ean.
- **DEBA KulturEkin: Jurgi Ekiza** Sarrera, 6 euro. Internet bidez salgai: labur.eus/ekizakulturekin. Debako Kultur Elkarteak, 20:00etan.
- **ELGOIBAR 'Azken ostirala' elkarretaratzea.** Sarek deituta, Kalegoen plazan, 20:00etan.
- **SORALUZE Bingo musikatua** Asigor tabernan, 20:30ean.
- **ERMUA Kontzertua: Janus Lester** Ermua Antzokian, 20:30ean.
- **ELGOIBAR Erakusketa: Carlos Fernandez zenaren lanak** Kultur Kafea tabernaren ordutegian egongo da zabalik, hilaren 26ra arte.

LARUNBATA 25

- **MALLABIA Suizidioaren prebentziorako eta osasun emozionala sustatzeko jardunaldia** Mallabiko Udalak antolatuta. 09:00etatik 14:00etara, hezkuntza-esparruko prebentzioa, detekzio goiztiarra eta familiekin koordinatzeko tresnak

landuko dira. 17:30etik 20:00etara, herritar guztiei irekitako tailerra izango da. Prebentziora aplikatutako gaitasun emozionalak landuko dira, eta erregulazio emozionalerako eta laguntzarako tresna praktikoak eskainiko dira. Kontzejuzarran.

- **ELGOIBAR Azken zapatuko feria** Debemene eta Udalak antolatuta. 09:00etatik 14:00etara, baserriko eta Artalde Artisau Taldearen produktuen salmenta Aita Agirre plazan. 11:00etatik aurrera, Kalamua Guraso Ellkarteak pintxoak prestatuko ditu Elgoibarko baserri eta harategietako produktuekin. Eguerditik arratsaldera, ganadu

erakusketa, Aita Agirre plazan.

- **MENDARO Bigarren eskuko azoka** Goñati frontoian, 10:00etatik 15:00etara.
- **DEBA Kubara bidaltzeko oinarritzko produktuen bilketa** Foruen Plazan, 10:00etatik 14:00etara.
- **DEBA Ibilaldia: 'Ibaiko plan integrala'** Sorluzeko Udaleko Ingurumen eta Landa Garapen Departamentuak antolatuta. Herrigunean, 10:00etan.
- **DEBA Liburuaren Eguna** Debako Kontalarien eskutik, ipuin kontaketa saioa helduentzat zein haurrentzat. Rafael Bravo idazle eta olerkigileak bere lanak aurkeztuko ditu: *Solsticio de invierno, Teoría*



MALLABIA San Jurki jaiak

LARUNBATA 25: 11:00etan meza. 12:00etan Mallabiko Gazte Alai dantza taldea. Ondoren, umeentzako jolasak: oilar-harrapatzea eta lapiko-apurtzea. Kafea eta txorizo-pintxoak. 14:30ean auzo-bazkaria, ermitan, Iruñe Basagoiti eta Ibai Amillategiren bertsoez girotua. 17:30ean Ostera Agarrera –umeentzako lasterketa–. 18:30ean Begi Bide taldearen kontzertu akustikoa. Berano Txiki auzoan.

Barrena[↑]
BATZEN GAITUENA

barrena.eus/egin-kide

eduki bereziak, zozketak,
deskontuak, abantailak

egin zaituz
Barrenakide!



del epilogo eta Mañana es todavía. Poesia errezitaldia Maite Lorenzok, Lourdes Dominguezek eta Marta Ugartecheak egingo dute. Kultur Elkarteak, 11:00etan hasita.

- **ERMUA 'Liburuak familian' haurrentzako irakurketa kluba** 3-5 urte bitarteko haurrentzako. Euskaraz. Liburutegiko hirugarren solairuan, 11:00etan.
- **MENDARO Motxaila herriaren maketaren erakusketa** Ikastolako bigarren solairuan, 11:00etatik 13:00etara.
- **MENDARO Pintxo dastaketa herriko lau tabernatan:** Aitzbeltz, Ormola, Txirristaka eta Uztargi: 12:00etatik 15:00tara.
- **ERMUA 'Liburuez gozatu' haurrentzako irakurketa kluba** 6-8 urte bitarteko haurrentzako. Euskaraz. Liburutegiko hirugarren solairuan, 12:15ean.
- **DEBA Sormen eguna** Serigrafia eta henna tailerra. Gaztetxean, 17:00etan.
- **ERMUA 'Sagu ipuinak' Amaia Puinen eskutik** 2017-2022 bitartean jaiotakoentzat. Liburutegian, 17:30ean.
- **SORALUZE Bertso txapelketa: Herriartekoaren final laurdena** Debabarreneko Xarmaginak eta Debagoieneko Leintz taldeak lehiatuko dira. Herri antzokian, 18:00etan.
- **SORALUZE Kontzertuak: Mise en Abyme, Cafe du Pont, Siriusly** Gaztetxean, 19:30ean.
- **ERMUA Pispillu eta La Moraña abesbatzak** Elizan, 22:15ean.

IGANDEA 26

- **DEBA Mendi irteera bateratua: Ozaeta-Andarotz** Parte hartzeko beharrezkoa da aurrez izena ematea. Autobus-geralekuan, 07:30ean.
- **MENDARO Pagoetara mendi irteera** Arno guraso elkarteak antolatuta. Ikastola ondoko aparkalekutik abiatuta, 09:30ean.

- **DEBA Xake txapelketa** Ispiluen gelan, 10:00etan.
- **DEBA Santa Katalinara irteera eta yoga familian** Izan Tribu Debako Euskaltzaleen Mugimenduak antolatuta. Foruen plazan, 10:00etan.
- **ELGOIBAR Dultzaineroen diana** Kalegoen plazan hasita, kalean zehar, 10:00etan.
- **MENDARO Pintxo dastaketa herriko lau tabernatan:** Aitzbeltz, Ormola, Txirristaka eta Uztargi: 12:00etatik 15:00tara.
- **ELGOIBAR Udal Musika Bandaren kontzertua** Herriko Antzokian, 12:30ean.

ASTELEHENA 27

- **ELGOIBAR Desira sexu-aholkularitza.** Doan. Txanda hartzeko: 688 69 81 43 edo desiraelgoibar@gmail.com. Lilan, 16:00etan.
- **SORALUZE Erakusketa: 'Dolmenen Ibilbidea'** Dolmenen Ibilbidean egindako indusketa arkeologikoetan aurkitutako hainbat elementu izango dira ikusgai erakusketan. Erakusketa aretoan, 18:30ean.

ASTEARTEA 28

- **DEBA Diabetesaren prebentzio eta eguneroko kudeaketari buruzko tailerra** Arbil Elkarte Sozialak antolatuta. Osakidetza profesionalak emango dute. Arbil elkarteak, 16:00etan.
- **ERMUA Haurrentzako tailerra: 'Naturarekin jolasean'** Naturako elementuak erabilia objektuak sortuko dituzte: maskara zuhaitz-hostoekin egitea, hostoekin markoak egitea, loreekin kolonia-ura prestatzea... 2019an eta 2020an jaiotako haurrei zuzendutako saioa, euskaraz. Liburutegiko hirugarren solairuan, 17:30etik 18:30era.
- **SORALUZE Ahalduntze eskola: 'Jarduera fisikoa menopausian'** Udaberri eta udako egitarauaren baitan antolatutako



ELGOIBAR Dantza eguna

ASTEAZKENA 29: Dantza Eguna ospatuko dute apirilaren 29an. 18:10ean kalejira egingo du Haritz Dantza Taldeak, Kalegoen plazatik Maalara, txistulariekin. 18:30ean jaialdiari hasiera emango zaio, Maalan, Crystal Pite koreografo kanadarrak idatzitako mezu instituzionala irakurri ondoren. Jaialdian 142 dantzarik hartuko dute parte; besteak beste, Haritz Dantzari taldekoak, Birakakoak, Haizeakoak eta Jubilatuetako taldekoak.

- **ITZIAR TEK Deba-Itziar komunitate energetikoaren informazio-saioa** Komunitate energetikoaren funtzionamendua, onurak eta parte-hartze prozesua azalduko dituzte. Burugorri eraikinean, 18:30ean.
- **ERMUA 'Book Club' ingeleseko irakurketa kluba** *Brave New World* (Huxley Aldous). Liburutegian, 19:00etan.

ASTEAZKENA 29

- **DEBA Errigoraren produktuen banaketa** Aldats pilotalekuaren ondoko gelan, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.
- **ELGOIBAR Hitzaldia: Treba Gazteak** Bizitzarako gaitasunei buruzko hitzaldia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 17:30ean.
- **DEBA Death Cafe saioa** Parte hartzeko interesa dutenek 655 73 44 87 telefono zenbakira deitu edo idatzi behar dute. Kultur Elkarte liburutegian, 18:00etan.
- **DEBA Irakurketa kluba: 'Dena zulo bera zen'** Asier Serranok gidatuko du saioa. Ostolaza udal liburutegian, 19:00etan.

- **SORALUZE Musika Asterako izen emateak** Perkusio herriko tailerlean eta Musiscore ikastaroan izena emateko azken eguna. SoraFOLK hari-topaketan izena emateko azken eguna maiatzaren 3an izango da.

OSTEGUNA 30

- **DEBA Comillasera irteera** Arbil Elkarte Sozialak antolatuta. Hondartza sarreran, 08:30ean.
- **DEBA Menopausiari buruzko tailer informatibo praktikoa** Ispiluen gelan, 18:00etan.
- **SORALUZE Ikus-entzunezkoa eta bisita gidatua: 'Dolmenen ibilbidea'** Aurkikuntza arkeologiko berriei buruzko ikus-entzunezkoa proiektatuko da eta Jesus Tapiak bisita gidatua egingo du. Herri Antzokian, 19:30ean.

OSTIRALA 1

- **SORALUZE Erakusketa: 'Dolmenen ibilbidea'** Dolmenen Ibilbidean egindako indusketa arkeologikoetan aurkitutako hainbat elementu izango dira ikusgai erakusketan. Erakusketa aretoan, 18:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- 24 BARIKUA Garitaonandia / Lasuen-Elezgaray / A.M. Baz
- 25 ZAPATUA Barrenebea / Lasuen-Elezgaray / A. Alcalá / *M.Alves
- 26 DOMEKA Barrenebea / Lasuen-Elezgaray / M. Alves
- 27 ASTELEHENA Fernandez / A. Zalduegi / I. Lecumberri
- 28 MARTITZENA Yudego / A. Zalduegi / A. Alcalá
- 29 EGUAZTENA Oruesagasti / A. Zalduegi / M.I. Ugarte
- 30 EGUENA Barrenebea / A. Zalduegi / A.M. Baz
- 1 BARIKUA Oruesagasti / H. Burgoa / M. Alves

*09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:

- Deba:** 09:00-13:45 / 16:30-19:30
- Elgoibar-Mendaro-Soraluze:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00
- Ermua-Mallabia:** 09:00-13:30 / 16:30-20:00
- Mutriku:** 09:00-13:30 / 16:45-20:00
- Itziar botikina:** 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK

- Egunez:** 09:00-22:00
- Gauetz:** 22:00-09:00
- Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 206 100)
- Larunbatak:** Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
- Deba-Mutriku: 09:30-13:00
- Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
- Igandeak eta jaiegunak:** Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK

- DEBA A. ZALDUEGI:** Lersundi, 20 - 669 26 22 01
- DEBA H. BURGOA:** Astillero, 2 - 667 33 88 90
- ELGOIBAR ARRIOLA:** Santa Ana, 1 - 943 74 01 40
- ELGOIBAR BARRENETXEA:** Errosario, 26 - 943 74 12 77
- ELGOIBAR GARITAONANDIA:** Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
- ELGOIBAR YUDEGO:** San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
- ERMUA A.M. BAZ:** Zearkale 2 - 943 03 17 03
- ERMUA M. ALVES:** Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
- ERMUA A. ALCALÁ:** Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
- ERMUA I. LECUMBERRI:** Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
- ERMUA M.I. UGARTE:** Goienkale, 11 - 943 17 05 26
- MALLABIA E. ARRONATEGI:** Mallazpi z/g - 943 17 24 14
- MENDARO FERNANDEZ:** Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
- MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY:** Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
- MUTRIKU L. APRAIZ:** Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
- SORALUZE SOTO:** Rekalde, 1 - 943 75 16 38
- SORALUZE ORUESAGASTI:** Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

ZINEMA

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIA
'El último vikingo' Larunbata, 25: 19:00, 22:15
 Igandea, 26: 19:00
 Astelehena, 27: 21:00
'Chirp ikertzailea' Igandea, 26: 16:30
'La grazia' (Ongarri zinekluba) Asteazkena, 29: 21:00

ERMUA

ERMUA ANTZOKIA
'Altas capacidades' Larunbata, 25: 19:30
 Astelehena, 27: 20:30
'Proyecto salvación' Larunbata, 25: 22:00
 Igandea, 26: 19:30
'Mi robot favorito' Igandea, 26: 17:00
'Águilas de El Cairo' (Zinekluba) Osteguna, 30: 20:30

DEBA

KULTUR ELKARTEA
'La luz que imaginamos' Igandea, 26: 19:00

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA
'Turandot' Ostirala, 24: 19:30
'La Familia Benetón +2' Larunbata, 25: 22:30
 Igandea, 26: 17:00, 20:00
 Astelehena, 27: 19:30
'Boulevard' Larunbata, 25: 22:30
 Igandea, 26: 17:00, 20:00
 Astelehena, 27: 19:30
'Te van a matar' Igandea, 26: 17:00, 20:00
 Astelehena, 27: 19:30

AZKEN BERBA

Txinak ez du txertorik behar



'AMATIÑO'
LUIS ARANBARRI

Jakinekua, Israelen militarismoak ez lukeela iraungo AEBren laguntzarik gabe. Zalantzarik ez, AEBk Venezuela eta Irango petrolioia nahi duela, erreserbez jabetzeko eta Txinari egoera gaiztotzeko, ez dira eta alferrik Venezuela eta Iran heresunge gorriaren hornitzaileak handienak.

Agerikoa, AEBk nahi duela ilargira itzuli, Txina baino lehenago heltzeko. Trumpen kaosa eta Xi Jinpingen oreka tarteko, AEBk presa du, Txinak ez. Txinak AEBk baino mila milioi biztanle gehiago ditu eta, azken mende erdian AEBren BPGa urteko %3,03 gehitu den artean, Txinarena %7,92 igo da. Hau da, urtero bikoitza, 50 urtean. Ekin eta jarrai, zaratarik gabe.

Trump buruzagia ala zenbait lobbyren txotxongiloa ote den argitzen den bitartean, AEBren eta Israelen interesak defendatzen dituzten ezkutuko –ez hain ezkutuko–-estrategiek ez dute Txina gaindituko. Txinak badu amaraun horretatik ihes egiteko jatorrizko immunitatea: Txinan ez dago judurik.

BUKATZEKO

Sei urtean sei itsasontziren erreplikak muntatu ditu Mikel Cruz soraluzetarrak

laztik, 'Victory' gerraontzi ingelesaren erreplika anatomikoa ari da muntatzen

Ubane Madera Zangitu SORALUZE
Trafalgarko gerrako (1805) *HMS Victory* itsasontziaren erreplika ari da muntatzen Soraluzen bizi den Mikel Cruz (Ainzon, Zaragoza, 1952). Iazko udan ekin zien muntatze-lanei, eta "aurten, behintzat", ez duela bukatuko uste du.

Izan ere, lan zailak hartzeko da Cruz, eta halaxe egin du oraingoan ere. *HMS Victory* muntatzeko 2.500 ordu beharko direla dio haren fabrikatzaile Artesania Latina etxeak; 10.000 piezatik gora ditu, haietako mordoxka dira nano-nanoak, eta muntaketak berak ere ezohiko zailtasuna dauka, *Victory* gerraontziaren erreplika "arrunta" barik, erreplika anatomikoa ari baita muntatzen Cruz; hau da, itsasontzia, kanpotik ez ezik, barrutik ere zelakoa den erakusten duena.

Detalle guztiak ikusgai

Cruzek dagoeneko itxuratu du itsasontziaren kroskoa.

Bost solairu eta estalkia ditu *Victory*-k. Albo batetik itxita dago eta bestetik ikus daitezke upelak, oheak, gelak eta logelak, sukaldea beheko suarekin, ur txorrota solairu batetik bestera, lasta... eta argiztapena ere bai, sasoiko kandelen argiak irudikatzen dituzten bonbillatxoekin argizatuta dago eta itsasontzia. "Horrek ere badu bere zailtasuna; solairuei eusten dieten bahoen gaintetik argindar-hariak pasatu, itsasontziaren atzeko aldera eramanez



Mikel Cruz, lokalean, lau itsasontziren erreplikekin, joan den barikuan. U.M.Z.

eta bertan zentralizatu dut zirkuitua. Orain, argi guztiak ditut piztuta, muntaketa amaitutakoan denak ondo funtzionatuko duela egiaztatzen, baina solairu bakoitza modu independentean argizta daiteke. Gainera, berez, pilekin funtzionatzeko dago prestatuta, baina nire jakintza elektronikorekin eta antzinako ordenagailu baten elikagailuarekin, pilekin barik argindarrarekin pizteko gailua egokitu diot", esplikatu du hark.

Kroskoaren eta estalkiaren azken osagaiak muntatu ondoren ekingo dio mastak, belak eta elkarrekin lotzeko hariak muntatzeari. Horiek denak ere benetakoaren igualak izango dira, mugitzeko autonomia eta guzti. Azken batean, benetako *Victory*-ren erreplika-erreplika ari da muntatzen Cruz. "Fabrika-

tzaileak originalaren baimena behar du erreplika egiteko. Originalarekiko erreplikarik ahalik eta errealean izan behar dute, derrigor", esplikatu du.

Trafalgar txikia lokalean

Bukatzen duenean, lokalean itsasontzien erreplikendako duen apaletan ipiniko du *Victory* itsasontzia. Cruzek 2024an muntatu zuen *Santisima Trinidad* itsasontziarekin pare lagako du. Hartara, Trafalgarko gerrako bi itsasontzi ez ezik, han gertatutakoaren erreplika ere

'Victory' da muntatuko duen barkuen azken erreplika; gero, trenekin hasiko da

izango du, Nelson almirantearen *Victory* itsasontzi ingelesak eraitsi baitzituen Francisco Javier de Uriarte eta Baltasar Hidalgo de Cisneros espainolek gobernatutako *Santisima Trinidad* itsasontziaren mastak.

Azken barkua; gero, trenak

Victory eta *Santisima Trinidad* itsasontziekin batera, Cruzen lokalaren apaletan beste lau itsasontzi ere badaude, muntatzeko errazenetik zailenera ordenatuta; honako hauek: bi *Titanic*, *Spirit of Mississipi* lurrunontzia eta *Belem* belaontzia –Frantziako itsasontzi-eskola–.

Cruz 2022an hasi zen itsasontziak muntatzen. Orduko hartan, puzzleak zituen zaletasun. Zortzi urtez puzzle erraldoiak egin zituen; egindako txikienak 1.000 pieza zituen, eta handienak, *El Jardín de las Delicias* puzzleak, 9.000 pieza. "Olentzerotarako, alaba besoetako Estherrek *Titanic* bat oparitu zidan muntatzeko, kartoizko piezekin, eta hurrengo egunerako muntatuta nuen; etxean muntatu nuen, puzzle batetik besterako tartean, eta berdin egin nuen bigarren *Titanic*-ekin", kontatu du. Gero etorri ziren *Belem*, *Santisima Trinidad* eta *Spirit of Mississipi*, eta orain etorriko da *Victory*.

Horixe da muntatuko duen itsasontziaren azken erreplika. "Lekua eta denbora agortzen ditut. *Santisima Trinidad* itsasontzia, adibidez, etxean neukan, baina lobak-eta zetozen bakoitzean mugitu egin behar nuen lekuz, horrek duen arriskuarekin. Horregatik ekarri nuen lokalera, eta leku finko batean laga. Baina hemen ere leku gutxi daukat, eta trenetara pasatuko naiz, trenak itsasontziak baino txikiagoak baitira", esplikatu du.



Barrena
BATZEN GAITUENA

egin zaitez Barrenakide!
barrena.eus/egin-kide



PORRA

Errege Koparen finaleko porra

Irabazlea: Jurgi Casado (Elgoibar)

Saria:

Lizagasar Sagartokixako produktu sorta

